

**zinea**  
silverspace 3D  
**musika**  
los ajustadores

# QEU

2,40 €

2008ko uztaia

186

**literatura**  
juan ibarrondo  
**araba**  
zuia ezagutuz



**maider unda**

borroka askea



# CEGASA

## Energiaren indar bizia

### BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



geu aldizkaria.  
urteko kuota: 20.- euro.

# sumarioa 186

## geupertsonaia

maider unda, borroka askea ..... 7-10

## arte txokoa / musika

los ajustadores rock taldea: 'el templo' ..... 11-13

## geugaia

silverspace 3D estudioa ..... 14-17

## arte txokoa / literatura

juan ibarrondo:  
'las ruinas de la catedral nueva' eleberria ..... 23-25

## batbitan

bidaiateka ..... 26-27

## batbitan

soft tenis ..... 28-29

## batbitan

iparraldeko ikasleak gasteizen:  
maider bedaxagar & amaia mujika ..... 30-31

## historia&euskara

zuia ezagutzuz ..... 34-35

## beste:

gaztezulo ..... 20

literatura dosi txikitán ..... 31

geusex ..... 37

agenda, kaletik, euskaltasunean, proposamenak, araba bixotzian,  
historia zutabea, errezeta eta umorea




7-10



11-13




14-17



30-31

**GEU**

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugasteiz@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune velez de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak: josune velez de mendizabal, edurne begiristain, ainhoa arriaga, nara o cuesta, ane pedruzo eta josune garcia de bikuña | azaleko argazkia: edorta sanz | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orratzketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea & araba bixotzian: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: lourdes oñederra, mikel ayerbe, erlantz urtasun, mainer garcia de bikuña (emaize sexologia zentroa), andoni rodriguez (diocesanasmendizorrotzak ostararitza eskola) eta gaztezulo. | publizitatea: idioia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzailea: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



# zeregineuskaraz [uztaila]

## LITERATUR SARIKETAK KAZETARITZA SARIAK

**ERNESTINA CHAMPOURCIN (POESIA)**  
**IGNACIO ALDEKOA (IPUINA)**  
**BECERRO DE BENGÓA (SAIAKERA)**  
epea: irailak 5  
antolatza: AFaren euskara, kultur eta kirol saia  
[www.alava.net](http://www.alava.net)

**PEDRO DE ATARRABIA (KONTAKIZUN LABURRA)**  
epea: irailak 12  
antolatza: atarrabiako udala  
948361029 / [ccvillava@cin.es](mailto:ccvillava@cin.es)

## HAURRENTZAKO ALBUMAK SORTZEKO III. ETXEPARE BEKA

HAURREI ZUZENDUTAKO IDAZLAN  
ILUSTRATU HOBERENARENtzat  
epea: azaroak 28  
bakarka edo taldeka aurkezteko aukera  
6.000 euroko laguntza + lanaren argitalpena  
lanak burlatuko udaletxean jasoko dira

## EUSKOMOVIE 2008: EUSKOSARE-REN LEHEN LABURMETRAIA LEHIAKETA

lanak aurkezteko epea: uztailak 20 arte  
-telefono mugikorraz, argazki makinaz edo bideoz filmatutako laburmetriak  
-euskal komunitate globalari zuzendua  
-gehienez 2 minutuko iraupena izango duten 5na film aurkezteko aukera izango dute parte-hartzaileek  
-proposamenek euskal gaiekin erlazioa izan beharko dute eta euskaraz, frantsesez, gazteleraz, ingeles edo ahotsik gabe egindako lanak onartuko dira  
-laburmetriak euskosare-ren web orrian ikusi ahal izango dira eta bozka-keta sistema bat jarriko da martxan  
-hiru sari: laburmetraia onenari saria, ideia berririk onenari saria eta publikoaren saria  
eusko ikaskuntzako euskosare-k antolatua  
oinarriak:  
[http://www.euskosare.org/eusko\\_sareri\\_buruz/euskomovie\\_lehiaketa](http://www.euskosare.org/eusko_sareri_buruz/euskomovie_lehiaketa)



NAFARROA. HISTORIA ETA ONDAREA ZIENTZIAREN BIDEZ

## NAFARROA. HISTORIA ETA ONDAREA ZIENTZIAREN BIDEZ

uztaila & abuztuan  
»KULTUR ONDAREAREN AZTERKETA TEORIKO-PRAKTIKOA (ikastaroa iruñean eta orbaizetan izango da)  
uztailak 21-27 / 50 ordu matrikula epea: ekainak 20 arte  
»AMAIURKO ETA NAFARROAKO ERRESUMAKO GAZTELUA (ikastaroa amaiurren eta baztanen izango da)  
uztailak 30-abuztuak 14 / 200 ordu matrikula epea: uztailak 15 arte  
[www.aranzadi-zientziak.org/](http://www.aranzadi-zientziak.org/)  
[www.ueu.org](http://www.ueu.org)

## EUSKARAZKO KOMUNIKAZIOA ETA HIZKUNTZA GUTXITUAK 08-09 UNIBERTSITATE MASTERRA

aurre-matrikula: uztailak 18 arte  
antolatza: ehu-upv  
<http://www.euskarazko-komunikazioa.info>

## JOSE ANTONIO LOIDI IKERKETA BEKA

aurkezteko epea: irailak 1-19  
ikerketa esparruak: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika  
euskaraz / 12 hilabete / 9.000 euro  
antolatza: irungo udala  
[www.irun.org](http://www.irun.org)

## MUSIKA MAKETEN II. LEHIAKETA

maketak aurkezteko epea: irailak 1 araban erroldatutako musikarientzat jatorrizko musika eta hitzak  
lehen saria: 7.000 euro  
AFAko euskara, kultura eta kirol sailaren ekimenez  
[www.alava.net](http://www.alava.net)

## SPRAIKADA



WWW.TOPAGUNEA.ORG/GRAFFITI

UZTAILAREN 19AN ERANDION

Eusko VI Graffiti Lehiaketa

## SPRAIKADA. EH-KO V. GRAFFITI

LEHIAKETAREN FINALA  
uztailaren 19an, ERANDION (aurretik bidalitako zirriborro sailkatuen finala)  
[www.topagunea.org/graffiti](http://www.topagunea.org/graffiti)

## DIBERTIKALE 08

MUNDUAN ZEHARREKO BIDAIA  
MAGIKOA (OLIVER MAGOA)  
uztailak 1, asteartea, 19:30  
arriaga g.e.-ren ondoko oinezkoentzako kalean

GRAMOLA (TXORROMORRO)  
uztailak 1, asteartea, 19:30  
konstituzio plazan (el pilar g.e.)

MUSIKA-TRESNEN FABRIKA  
(XURDIN)  
uztailak 7, astelehena, 19:30  
zuberoa plazan (iparralde g.e.)



GOLOKA PARK  
(GOLOKA ANTZERKI TALDEA)  
uztailak 9, asteazkena, 19:30  
san jose ikastetxearen ondoko pistetan (ariznabarra g.e.)

MUNDUZ MUNDI (BEGIRA  
ANTZERKI TALDEA)  
uztailak 10, osteguna, 19:30  
valentin foronda zidorra (lakuako g.e.)

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)



ADURTZAKO JAIAK  
KONTZERTUA: DEABRUAK TEILATUE-TAN & ZEA MAYS & mossin nagant  
uztailak 19, larunbata, 23:00. doan

## G.E.A., 'GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDA' DIGITALA jaso nahi?

bidalguzu zure e-posta [geu@geu-gasteiz.com](mailto:geu@geu-gasteiz.com) helbidera eta hilerro jasoko duzu.  
gasteizko euskarazko ekintzen bilduma da G..E.A.  
ezinbestekoa Gasteizen euskaraz mugitzeko!

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

**BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ**



**MONTEHERMOSO KULTURUNA. ERAKUSKETAK**

asteazkeneo, 19:30 (ez da beharrezkoa deitzea) / larunbatetan, 13:00 taldeak: asteartetik ostiralera, 18:00 (aurretik erreserba eginez) [945161859 / educacion@montehermoso.net] bisitaldiaren hasiera: argibide zerbitzuan abuztuak 31 arte:  
 - CONATUS: BASO BAT  
 - BEIRAZKO BOLA  
 - AUSARDIA (ON KAWARAREN MODUKOA IZAN NAHI DUT)  
 - BESTE LEKU BATERAKO ZANTZUAK  
 - ... BAINA, NON ZAUDE(TE) FISIKOKI?  
 - ROBINSON CRUSOE  
 - PLAY>REBOLLO  
 - KULTUR KARMA  
 - ARTEA ETA EKONOMIA INFORMATIBOA  
 - NEXT: AURKEZPENAK 3. uztailak 18-irailak 7  
 - TERMS OF USE. abuztuak 31 arte  
 - PASAHITZAK 4: emetasunari buruzko irudikapen berriak. irailak 7 arte  
[www.montehermoso.net](http://www.montehermoso.net)

**ANDRA MARI KATEDRALA**  
 945255135  
[www.catedralvitoria.com](http://www.catedralvitoria.com)

**GASTEIZKO ERDI AROKO HARRESIA**  
 erreserbak: andramari katedralaren bisitarien zentroan / 945 255 135  
 4 bisita eguneko (iraupena: ordubete): 11:15, 12:45; 17:15, 18:45  
 2 euro pertsonako

**IRUÑA-VELEIA**  
 945403044 / 652720947  
[www.veleia.com](http://www.veleia.com)

**GATZ HARANA. GESALTZA AÑANA**  
 astelehenetik igandera (jai egunak barne), 11:00 / 12:00 / 13:00 / 16:00 / 17:00 / 18:00  
 bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino gehiagoko taldeak  
 helduak: 3 euro / lagundutako haurrek: dohainik / taldeak: euro 1  
 945351111  
[www.vallesalado.net](http://www.vallesalado.net)

**ARTIUM**

**ERAKUSKETAK**  
 -ERREP(L)IKA-GAIAK. BILDUMA VII (abuztuak 31 arte)  
 -ESKURATU BERRIAK (urriak 5 arte)  
 -POWER FOOD. ANTONI MIRALDA (azaroak 2 arte)  
 -INGURU HURBILAK (irailak 14 arte)

**ERAKUSKETEN BISITALDI GIDATUAK**  
 asteazken & larunbatero (11:30/18:00) eta igandero (11:30/12:30) banako bisitariarantz. doan. plaza mugatuak

**TALDEENTZAKO BISITALDI HITZARTUAK**  
 derrigorrezkoa alde aurretik erreserba egitea (73 euro)

**FAMILIENTZAKO BISITA GIDATUAK**  
 larunbat & igandeak, 12:30-13:15  
 5-11 urte bitarteko umeentzat, helduek lagunduta  
 doan. plaza mugatuak

**UDALEKUAK**  
 izena emateko epea: betetzen denean itxiko  
 [ordutegia: 8:00-20:00]  
 ZURE HIRIA EZAGUTU ETA APROBETXATU ARTEA ETA NATURA  
 6-10 urte / elebidunak / 9:30-14:00 / ekainak 30-abuztuak 1 / astebete (65 euro) edo 2 aste (120 euro)  
 GAZTETXOENTZAKO UDALEKUAK:  
 ZEIN ADIERAZPIDE ERABILIKO DUT?  
 11-14 urte / 9:30-14:00 / uztailak 7-11 / 75 euro

**FAMILIENTZAKO PROGRAMAK: UZTAILEKO ASTEAZKENETAKO LANTEGIAK**  
 uztailak 16, 23 eta 30, 11:00-13:00  
 6-10 urte bitarteko umeentzako lan-tegiak & gurasoentzako bisitaldi gidatua  
 tarifa: saioko 2 euro (kide elkartuak: saioko euro 1)  
 (toki mugatua)

info + erreserbak: 945209010  
[www.artium.org](http://www.artium.org)

**SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA**

**BIKOTEEN ARTEAN HIZKUNTZA OHITUREN ALDAKETA IKERKETA-LANA**

Ikerketa honen helburua hizkuntza ohitura aldatu eta kasu honetan, GASTEIZen bizi diren bikoteak aztertzea da, aldaketa hori nola eman duten jakiteko. Bikote horiek garai batean erdaraz egiten zuten, eta aldaketa eman ondoren, gaur egun, beraien komunikazio hizkuntza nagusia euskara izan behar da. Bikotearen hizkuntza harremana euskaraz izateak bikotekideen euskararen gutxienezko ezagupen maila dakar, noski. Bikotea edozein "motakoa" izan daiteke: ezkondata daudenak/ez daudenak, seme-alabak dituztenak/ez dituztenak...

Ikerketa hau burutzeko zuen borondatezko laguntza eskertuko genuke, beraz, GASTEIZen bizi bazarete eta hizkuntza ohitura aldaketa egin baduzue, guri jakinarazi edo aldaketa bizi duten bikote batzuk ezagutarazi. Bikoteekin harremanetan jartzeko bideak ematean galdera sorta bat pasa eta ondoren 45 minutuko elkarrizketa egingo diogu bikoteari. Gurekin harremanetan jartzeko: zioirtza@soziolinguistika.org

Proiektuaz edo Egitasmo Estrategikoekaz informazio zehatzagoa nahi izanez gero, Soziolinguistika Klusterraren bulegoan eska dezakezue: kluster@soziolinguistika.org / 943592556. Edo webgunera bertara jo: [www.soziolinguistika.org](http://www.soziolinguistika.org)

**BESTELAKOAK**



**JAZZHARREAN**  
 GASTEIZKO ALDE ZAHARREKO JAZZ JAIALDIA  
 uztailak 1-3 / 8-13  
 GORA, PARRAL, KITSCH eta LA RIOJANA tabernak + ARTIUM (art+sound)



**GASTEIZKO 32. JAZZALDIA**  
 uztailak 13-19  
[www.jazzvitoria.com](http://www.jazzvitoria.com)

**JAZZ TERRACE 08**  
 uztailak 13-19  
 montehermoso kulturunean, 13:30  
[www.montehermoso.net](http://www.montehermoso.net)

**ESKOLA ETA IKASTOLA EZBERDINETARAKO BEGIRALEAK BEHAR DITUGU**

**Azu Lagun**

- Euskera beharrezkoa da
- Ordutegia: eguerdian
- Kontrata: kurtso eskolarra edo ordezkaketak

Bidali CVa [rrhh.urb@azulagun.com](mailto:rrhh.urb@azulagun.com)

**GEU** laguntzailea: **GIZARTE EKINTZA Obra Social**  
 Caja Vital Vital Kutxa  
 Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



## K.2 IKASTAROA ANIZTASUN BERRIEN HARIRA (I)

### Zuzendaritza:

**Xabier Aierdi Jn.** *Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. Leioa. UPV/EHU.*

**Helburuak:** Euskal Herrira immigrazio berrituak heldu direnean aniztasun forma berriak ezarri dira eta askoren ustez munduko hainbat herrialdeetako biztanleek ekarri omen dute aniztasuna. Egun, esaterako, gure artean neurri ezberdineko 110 ama-hizkuntza ezberdin ezagutzen dira. Horietatik, batzuk, seguruenerik, hezkuntza sistemak noizbait eskaini ahal dituzten, arautu egin beharko dira.

Baina, aniztasun berri honen parean, aspalditik, duela bi hamarkadatik hona gutxienez, etengabe euskal aniztasunaz hitz egiten da. Gainera sarritan aniztasuna erraz nahasten dira gurean, batek bestea erantsia balekar bezala. Aniztasuna erraz nahasten dira gurean, batek bestea erantsia balekar bezala. Aniztasuna erraz nahasten dira gurean, batek bestea erantsia balekar bezala. Aniztasuna erraz nahasten dira gurean, batek bestea erantsia balekar bezala.

Anitzaz gain, badirudi konplexua ere badela gure gizartea eta, ondorioz eta gaurdaino, aniztasun komunitarizatua ezin izan dugu gaititu. *Matrioskha* sindromearen egoera honetan etorkizun hurbilerako dugun erroka honakoa da: nola kudeatu immigrazio prozesu berriak, gutxiengo nazional baten eskariak eta indarreko estatunazioaren nahi homogeneizatzailerak. Ez du ematen etorkizuna erraza izango denik, baina gutxienerik hiru egunetan honen inguruko hausnarketari ekingo diogu.

Lehen egunean, aniztasun historikoa jorratuko dugu. Bigarrean, egungo aniztasun berria. Hirugarrenean, etorkizun bideragarriak bilatzeari ekingo diogu.

### IKUSPEGI. Immigratioaren Euskal Behatokiaren lankidetzaz.

Matrikula-prezioak:

Maiatzaren 31ra arte: 70 euro . Ekainaren 1etik

aurrera: 84 euro.

Balio akademikoa: 30 ordu.

Homologazio kodea: 0868170022

Hizkuntza ofiziala: euskara.

Tel. 943219511 – cursosverano@sc.ehu.es

http://www.sc.ehu.es/cursosverano

### UZTAILAK 14

- 8:45etan Dokumentazio banaketa  
9:00etan Ikastaroaren aurkezpena  
9:15etan "Aniztasuna: konstanteak eta aukerak"  
**XABIER AIERDI** Jn. *Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. Leioa. UPV/EHU.*  
10:15etan "Euskal Herri garaikidearen aniztasunaren ezaugarriak"  
**JOSU CHUECA** Jn. *Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. Leioa. UPV/EHU.*  
11:15etan Etenaldia  
11:30etan "Aniztasunaren ezaugarriak postmodernitatean"  
**XABIER BARANDIARAN** Jn. *Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren Kabinete Burua.*  
12:30etan "Euskal Herriko aniztasunaren diagnostiko bat"  
**KEPA AULESTIA** Jn. *Analista politikoa.*  
13:30etan Laburpen saioa

### UZTAILAK 15

- 9:00etan "Hegemonia nortasun kolektiboaren eraikuntzan"  
**MARIO ZUBIAGA** Jn. *Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. Leioa. UPV/EHU.*  
10:15etan "Naiz, naizena. Ez, ez naizena"  
**JOSEBA ZULAIKA** Jn. *Antropologoa. Center for Basque Studies. Reno, Nevada.*  
11:15etan Etenaldia  
11:30etan "Elean hitz eta eleanitz"  
**JON SARASUA** Jn. *Soziologoa. Huzei. Mondragon Unibertsitatea. U.P.V./E.H.U.*  
12:30 etan "Abertzaleak eta euskara: abertzaleen nazio-identitateak"  
**JOXE MANUEL ODRIUZOLA** Jn. *Euskara-irakaslea.*  
13:30etan Laburpen saioa  
16:00etan "Identitate post-euskaldunak"  
**FERMIN ET XEGOIEN** Jn. *Kazetaria. K-2000.*  
**JUAN KRUIZ LAKASTA** Jn. *Kazetaria.*  
**LUIST XO FERNANDEZ** Jn. *Interneteko aditua. CodeSyntax/Tagzania.*


### UZTAILAK 16

- 9:15etan "Zenbait erizpide atzerriko immigrazioaren kudeaketerako"  
**AGUSTIN UNZURRUNZAGA** Jn. *SOS Arrazakeria-Gipuzkoa.*  
10:15etan "Erljioen elkarrizketa gaurko euskal gizartean"  
**JOXE ARREGI** Jn. *Teologia irakaslea. Deustu. HEMEN aldizkari zuzendaria.*  
11:15etan Etenaldia  
11:30etan "Immigratioa, hiria eta aniztasuna"  
**ARKAITZ FULLAONDO** Jn. *Soziologoa.*  
12:30etan "Identitate anitzaren larritasunak: metaketa prekariora eta gestio izoztua"  
**ANDONI EIZAGIRRE** Jn. *Soziologoa. Huzei. Mondragon Unibertsitatea.*  
13:30etan Laburpen saioa  
16:00etan "Aniztasuna eta literatura"  
**KIRMEN URIBE** Jn. *Idazlea.*  
**UXUE ALBERDI** And. *Kazetaria.*  
**HARKAITZ ZUBIRI** Jn. *Soziologoa.*

**BEIJIN-EN BORROKA,  
OLETAN GAZTA**

**MAIDER UNDA,  
BORROKALARIA:**


***“Etxean  
denbora berez  
joaten zait eta  
kanpoan  
orduak luze  
egiten dira”***



**t. naroa cuesta**

**a. edorta sanz & artxibo**

Urduri dago Mainer Unda zita noiz helduko zain. Txikitan amestutakoa gainditzen duen hitzordua da, beraz, irrikaz dago Oletako neska gaztea. Hilabete barru hartuko du Undak hegazkina Beijinerako bidean. Joko Olinpikoetan borroka egingo du. Bai, borroka. 1,77 metroko garaiera duen neska honek 72 kiloko kategorian aritzen da borrokan.



Dena dela, baserrian izaten ditu buruhausterik handienak. Izan ere, Idiazabal jatorria duen Artzain gaztaren ekoizlea da. Haren gurasoak hasi ziren gazta egiten eta aurrerantzean Mainerren jarduna izango da. Aurten baserria eraberritzeko asmoz lanetan aritu da, gogor gainera. Oletan ikusten du aramaioarrak etorkizuna. Urrun dagoenean etxe-mina sentitzen duela aitortu digu. Etxean zoriontsu bizi da Mainer Unda.

Hogeita hamaika urte bete berri ditu Mainerrek. Bederatzi urterekin izan zuen kirol honen berri eta orduetik ezin izan du burutik kendu, amak saialdiak egin baditu ere. Aramaioko Oleta herrian bizi da, baina kanpoan denboraldi luzeak igarotzen ditu. Baserrian prestatutako gimnasioan entrenatzen du, baita Gasteizen ere. Arabako Eskolako klubeko kide da eta Luis Crespo du entrenatzaile 2000 urtetik. Madrilen goi-prestakuntza zentro batean bi urte igaro zituen; lesioak direla medio etxera bueltatzea erabaki

zuen. 2001ean masailezurra apurtu zioten, 2003an eskuin belauneko meniskoa eta lotailu gurutzatua apurtu zituen, eta hurrengo urtean ezker belauneko bursitisak jokoz kanpo utzi zuen denbora luzez. Goi-mailako kirolaren itzalak sufritu ditu Undak, aldiz, garaipenaren eguzkipean igaro du denbora gehien.

1998. urtean gauzatu zen lehendabiziz Espainiako Borroka Txapelketa. Orduetik Espainiako emakumezkoen borroka taldeko partaide da, eta hamar aldiz izan da txapeldun. Kontuak atera! Ostera, garaipenik aipagarrienak Espainiatik kanpo lortu ditu. 2001ean Mediterranear Jokoetan brontzezko domina lortu zuen eta 2007 urteko Munduko Txapelketan bosgarren postua. Sailkapen honek Txinan izango diren Joko Olinpikoetan parte hartzeko sarrera eskuratzeko balio izan dio. Oletan gazta domina zain, abuztuaren 18an lehiatuko da Mainer Unda domina Olinpikoa lortzeko helburuz Beijinen.



**Non bizi izan dituzu borrokarik gogorenak, etxean, baskularekin edo tapi-zean?**

Lehen baskularekin, baina orain pisua kontrolatzen dut. Beti berdina da eta azkenean zure gorputza ezagutzen duzu: kiloak nola hartzen diren eta nola galtzen diren. Bestetik, etxean obrak egiten ari naiz, nire gurasoak jubilatuta dira eta nire izenean jarri dut dena. Arazo piloak izan dit, urtebete egon naiz baimenak eta laguntzak lortzeko. Laguntza asko daudela esaten dizute baina jasotzen hasten zarenerako guztia ordaindu behar duzu, eta gainera oso astiro doaz. Hala ere, gogorrena tapizean bizi dut.

**“goian zaudenean denak dira zure lagunak, denek ezagutzen zaituzte..., baina behera jausten zarenean ez zara inor**

**Noiz eta nola ezagutu zenuen kirol hau?**

Ikastolan hasi nintzen, Otxandion. Ekintza gisa agertu zen eta besterik ez zegoenez, horretan hasi nintzen bederlatzi urterekin. Hasieran Sambo egiten hasi nintzen, borrokaren parekoa da baina arropa gehiagorekin, jakatxo bat eramaten duzu.

**Imajinatzen zenuen noizbait Joko Olinpikoetan parte hartzea?**

Ez. Gainera pasa den joko olinpikoetan izan zen borroka lehenengo aldiz kirol olinpikoa. Nire ametsa ez zen olinpiada batzuetara joatea. Nire ametsa kirol bat egitea eta ondo pasatzea zen bakarrik.

**Noiz igaro zinen maila profesionalera?**

Espainiako txapelketak 1998. urtean egin ziren lehenengoz, eta orduan ikusi nuen nahi eta ahal izanez gero egingo nuela. Espainiako txapelketa guztiak irabazi ditut ordutik.

**Kirol erasokorra dela esango zenuke?**

Ez, ez da agresiboa. Baina bada adrenalina asko deskargatzen den kirola.

**Emakume askorik ez da kirol honetan aritzen, gizonezkoekin entrenatu behar izaten duzu?**

Hemen etxean entrenatzen dudanean bai. Gasteizen ez dago neskarik. Baina kanpora joaten naizenean neskekin aritzen naiz.

**Luis Crespo duzu entrenatzaile, Pekinerako bidaian zerikusirik izango zuen, ezta?**

Bai, bera da nigan konfiantza gehien jarri duena. Egunero transmititzen dit borroka ez dela irabaztea bakarrik, baita disfrutatzea ere.

**Emakume polifazetikoa guztiz: borrokan aritzen da, artzain bezala egiten du lan eta elektronikak ikasketak burutu ditu. Nolakoa da Mainer Undaren ohiko eguna?**

Asko aldatzen da nire bizimodua etxean egon edo kanpoan egon. Normalean etxean goizeko seieta altxatzen naiz, ardiei jaten eman, esnea jetzi, etxeko-lanak apur bat egin... Gazta ez dut beti nik egiten, nik lagundu bakarrik egiten dut; gazta egiten denbora asko eman behar da. Etxean nagoenean *papeleo* asko egin behar izaten dut. Goizaldi aldera pesak egiten ditut ordubetez. Gero bazkaldu, ahal bada siesta pixka bat, eta bestela ardiei janaria prestatu eta obren inguruko gauzeekin jarraitu. Arratsaldean, Gasteizera joaten naizenean, bi ordu inguru entrenatzen dut.

**Etxean edo entrenatzen nahiago?**

Niri etxean denbora berez joaten zait, eta kanpoan egoten naizenean orduak luze egiten dira.

**nire ametsa kirol bat egitea eta ondo pasatzea zen bakarrik**

**Zer dauka berezi borroka?**

Nortasun handikoa naiz eta adrenalina asko askatzen dut. Ez da bakarrik indarra edo teknika, momentuan biak erabiltzen jakitea da.

**Eta Idiazabal gaztak?**

Idiazabal gaztak badauka bere izena dagoneko. Gure betiko ardien esnearekin egindako gazta da, betiko eran.

**Joko Olinpikoetan parte hartuko duzu laster. Urduri?**



Irailan sailkatu nintzen eta irailetik hona lan dezente egin dut. Desiatzen nago momentua heltzeko. Gainera, beti esaten dizute gutxi falta dela, baina oraindik falta da.

## **Beijinerako bidea ez da erraza izan. Lesio ugari izan dituzu azken urteotan, ezta?**

Madrilen nengoen lesionatzen hasi nintzeanean eta etxera bueltatzea erabaki nuen. Nire helburu bakarra orduan niretzako borroka egitea zen, eta ez lehiatzeko. Goian zaudenean denak dira zure lagunak, denek ezagutzen zaituzte..., baina behera jausten zarenean ez zara inor. Hori guztia bizi izanak erakutsi dit benetako pertsonak nortzuk diren, horretarako ere balio izan dit.

**“nire aurkaririk gogorrena beti esan dut bulgariarra dela**

## **Zein da zure helburua Pekinen?**

Domina baten bila noa. Urte osoa eman dut lanean, eta iaz bosgarren geratu nintzen Munduko Txapelketan; hori gainditu nahi dut.

## **Zein izango da zure aurkaririk gogorrena?**


Nire aurkaririk gogorrena beti esan dut bulgariarra dela. Bere herrian borroka tradizio handiko kirola da. Baina Estatu Batuetan ere ikastetxeetan oso sartuta dago, eta Errusian “kirol nazionala” dela esan daiteke. Beraz...

## **Etorkizuna tapizean edo ardiekin base-rrian?**

Nire etorkizuna Oletan dago, hori argi dut. Orain inbertsio piloa egiten ari naiz, pabillioia, gaztandegi berria...

## **Eta Joko Olinpikoetan urrezko domina lortuz gero?**

Nire helburua ez da oraino borroka uztea. Hogeita hamaika urte ditut oraindik eta ondo nago, nire gorputzak esango dit noiz utzi behar dudan borroka. Hogeita hamar urtetik gorako jende asko dago. Esperientziak, gainera, eragin handia du.



## **Familiak gustuko du borroka?**

Nire familiak ez du lar ondo ikusten nik borroka egitea. Beti esan izan dute “kendu-ko zaio burutik” eta horrelakoak. Lesio asko izan nituenean asko sufritzen nuela ikusi zuten. Beste aldetik, ondo iruditzen zaie niri gustatzen zaidana egitea.

**“nire etorkizuna oletan dago, hori argi dut**

## **Artzain munduarena zer izan da, bideari jarraitzea edo aukera?**

Nik etxean beti izan dut hau. Gustura nago, lan asko egin behar da baina saria ere oso handia da. Adibidez, guk gure gazta

saltzen dugu, eta ikustea jendeari gustatzen zaiola oso betegarria da.

## **Artzaintza eta borroka. Emakumeen neurrira egindako munduak al dira?**

Ohiturak ez daude betiko. Beti hala izan bada eta beti hala jarraitu behar badugu... ez dut ondo ikusten, ez dago zergatik hola jarraitu beharrik. Emakumeok daukagun sufritzeko gaitasun hori ez daukate mutil guztiek. Emakumeak desberdinak gara gauza askotan, gizonak konformistagoak izaten dira ■

**“nire familiak ez du lar ondo ikusten nik borroka egitea**

# LOS AJUSTADORES

## ROCKAREN TENPLUTIK ESTREINAKO LANA

Alex Ferreira *El Hierro*, Javi Peña *El Toro* eta David Marinek osatzen dute Los Ajustadores taldea. Hirukote gasteiztarrak lehen lana kaleratu berri du: **El Templo**. 11 kantaz eta bideo batez osatutako rock diskoa da. Momentua bizi behar dela dioen leloa hartuta, ilusioz ekin diote taldeko kideek ibilibide berriari.



**t. edurne begiristain a. edorta sanz**

**Taldea osatu gabe zenutenean, elkarrekin jotzen ibili zintzen, noiz edo noiz, denbora tarte batean... Zerk bultzatuta erabaki duzue Los Ajustadores taldea osatu eta diskoa kaleratzea?**

**Alex-** Los Ajustadores proiektua beste lagun batzuekin hasi nuen, Soulbreaker taldeko baxujolearekin hain justu, eta duela bi urte kalera- tzeke dagoen disko bat grabatu genuen. Orduan agertu ziren David bateriarekin eta Javi Arteaga baxu eta teklatuarekin, eta elkarrekin hain- bat *bolo* edo emanaldi egin genituen. Ostean agertu zen Javi *El Toro*, eta batu egin zitzaigun Javi Arteagaren ordeaz. Duela urte eta erdi ekin genion elkarrekin jotzeari, eta duela zortzi hilabete hasi ginen diskoa grabatzen.

**Nolakoa izan da taldea eratu eta lehen diskoa kaleratzeko prozesu hori dena?**

**David-** Azkarra. Mole Hole estudioan grabatu dugu, eta bateria, esa- terako, orubetea grabatu genuen. Nik aitortzen badizut hasieran ez nekien zertarako ari nintzen grabatzen, maketa baterako, disko bate- rako... kar, kar!

**Alex-** Estudioko grabazioak egin ostean, grabaketa horiek ordenagai- lura pasa genituen, eta orduan hasi ginen baxuak, gitarrak eta bestela- koak sartzen. Bateriak azkar batean grabatu bagenituen ere, gainera- koa egiteko sei hilabete behar izan dugu. Diskoa ekoiztea, grabatzea, nahastea... denbora eman dugu.

**Lan horretaz zeu arduratu zara, ezta Alex?**

**Alex-** Bai, bai. Eromena izan da, batez beste, egunean hamabost ordu ematen nituelako zeregin horretan. Gainera, ordenagailuaren pro- grama ikasi ahala ibili nintzen musika konponketak egiten eta abar. Eromena izan da bai, baina aldi berean oso polita. *Pituk* eta *El Topok* lagundu didate batez ere lan horretan. *Pituk* nire lan guztia berrikusi eta masterizatu zuen.

**Lan horren guztiaren emaitza El Templo da. Nola definituko zenukete disko berria?**

**Javi-** Nire ikuspuntutik, orain arte norberak bere aldetik egin duen lana sinplifikatu behar izan dugu, hiru musikarik jotzeko moduko musika egin ahal izateko. Melodiei eutsi behar izan diegu, riff gitarrak mantendu..., alegia, hiru musikarirekin egin behar izan dugu hori guz- tia. Ongi entzuteko lana da disko berria. Oso pozik nago emaitzare- kin. Uste dut rock talde batean ezinbestekoa dela musika barruan sen- titzea, zuzeneko bakoitza desberdina delako, publikoa ere desberdina delako...

**David-** Nire ustez diskoa modu batean entzuten da, eta zuzeneko beste batean. Diskoa politagoa dela esango nuke, baina zuzenean hiru gaude bakarrik, eta gehiago sinplifikatu behar dugu dena...

**Javi-** Antzerkia egiten dugu. Zuzenean rock hutsa gara.

**Alex-** Zuzenekoan abesti bakoitzak berria dirudi. Magia berria da. Izugarria da.



**Rock taldea zarete, baina pop kutsu txiki bat ere antzeman daiteke hainbat abestitan... Hor dago Andres Calamaroren bertsioa...**

**Alex-** Bai, bai..., disko honek badu pop kutsu bat, bereziki ahotse- tan melodia asko dagoelako. Gitarrak, ahotsak, koroak, harmoniak lan- duta daude... Baina rock asko dauka, baita bluesa eta soula ere.

**Javi-** Musika estilo oso desberdinetatik gatoz, eta beraz, abesti bakoitzari kutsu berezi eta pertsonala ematen diogu. Diskoa melodiko- a goa da zuzeneko baina, gogorragoa eta tinkoagoa da musika taula gainera igotzen garenean.

**Zuzeneko asko gustatzen zaizuela nabaritzen da...**

**David-** Bai, gainera zuzeneko gero eta hobeto entzuten da. Oso gustura gaude egiten ari garen zuzenekoekin.

**Javi-** Oso pozik gaude.

**Zertaz doaz letrak? Zer kontaktatu duzue?**

**Alex-** Neskei buruz hitz egiten dugu, galerei buruz (nire aita), bizi- penez, itxaropenez,...

**Javi-** Letrak motzak dira, baina zabalak. Hau da, testu gutxi dute baina esanahi handia. Denok bizi izan ditugu une txarrak eta onak, baina azkenean aurrera begiratu beharra dago, bizi, gozatu... Hori helarazi nahi izan dugu.

**Alex-** Diskoaren mezua oro har hori da: momentua bizi behar dela, eta eguneko topera gozatu beharra dagoela. Letrak baikorrak dira.



**Bi bertzio egin dituzue: Calamaroren 'No va mas' kanta, eta Tri taldearen 'Como un sueño'. Zergatik horiek?**

**Alex-** Oso gustuko ditut kanta horiek. Tri Mexikoko talde bat da, izugarri gustatzen zait, eta kanta horren mezua oso gogoko dut. Bertzioaren abestia dexente aldatu dugu, letrak berberak dira, baina aldatu egin dugu.

**Javi-** Azken batean Los Ajustadores hori da, alegia, nik baxu diferente bat egiten baldin badut, eta kanta ongi geratzen bada, aurrera egiten dugu.

**Alex-** Kantak gu eroso sentitzeko moduan jotzen ditugu.

**Bideo bat ere egin duzue, eta CDan dago.**

**Alex-** Bai, lehen pista da. La Mara produktorak egin du. Gasteizen grabatu genuen, Katedral Zahar tenpluan, kalean,...

**Rock mugimendua suspertzen ari dela ematen du... Gasteizen hor dugu Hell Dorado aretoa, hainbat tabernatako musika programazioa, Dj askok ere rocka eskaintzen dute euren saioetan... Nola ikusten duzue?**

**Alex-** Mugimendua badago, bai. Gasteizen areto dezente daude rock musika, *garajea*, eskaintzen ari direnak, kanpoko talde ugari ekartzen ari dira, talde asko ateratzen ari dira eta toki asko daude jotzeko.

**Javi-** 60, 70 eta 80. hamarkadetako musika berpizten ari dela uste dut. Punk-rocka, hardcorea,... Talde asko ari dira jotzen, eta hori oso ona da.

**Susperraldia izanda ere, jendeak kontzertuetara joateko ohitura gutxi dauka...**

**David-** Bai, jendeak kontzertuetara gehiago joan behar du, ez baita asko joan ohi. Jendea kexu da beti kontzertu gutxi daudelako, baina daudenean ere ez da apenas inor joaten. Gero Bisbal dator, eta gainera egoten da. Mundu honetan gabiltzanok ere badugu erru apur bat, gutako bakoitza kontzertuak ikustera joango bagina, aretoak beteko genituzkeelako.

**Alex-** Ni kontzertu dexentetan egoten naiz; Hell Doradon esaterako kanpoko talde izugarriak ekartzen dituzte eta Gasteizko lau katu egoten gara, gehienak kanpokoak izaten dira.

**Zuzenekoez ari garenez, zuek udarekin batera kontzertuak eskaintzeari ekingo diozue. Agenda beteta?**

**Alex-** Uztailaren 4an Iguanen egongo gara, I In San Cristobal auzoko jaietan, eta abuztuaren 1ean Falerinako Lorategian. Irailean Legutianoako jaietan joko dugu. Gainera, Bilbo, Madril eta Bartzelonara ere diskoa aurkeztera joango gara ■

**EGUR**

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pob.  
Goiain Industrialdea  
TI/Fxa: 945 465 921  
TI. 627 417 747  
info@egur.es  
www.egur.es  
01171 Legutiano (Araba)

**EA**  
eusko  
alkartasuna

**GA**  
Gazte  
Abertzaleak

www.euskoalkartasuna.org  
c/ san prudencio 3  
gasteiz-erdialdea

**Euskeraz Araban BAI**

www.gazteabertzaleak.org  
c/ vicente manterola z/g  
zaramaga

## SILVERSPACE 3D ANIMAZIO ESTUDIOA

# 'PERPETUUM MOBILE' FILM LABURRAREN HAZIAK LORE EDERRA EKARRI DIE

'Perpetuum Mobile' euren lehen lanak nazioarteko jaialdietako hamabost sari eskuratzea ekarri die Silverspace-ko mutilei. Lau urte dira Ruben Salazar eta Quique Garcia gasteiztarrek 3Dn lanean aritzen den enpresa abiatu zutela. Apurka-apurka baina urrats tinkoz 2006an eman zuten ezagutzera euren *opera prima*". Orduetik proiektu berriak sortu zaizkie gasteiztarrei; hala nola, Argentinako, Kubako edota Antonio Banderasen produktorearekin aritzea.


t. josune velez de mendizabal

a. edorta sanz & silverspace

## JAIALDIEZ GAIN SILVERSPACE-REN LANA ERE ZINEMAN



Jesus Garay zuzendari asturiarraren ondoan ezagutu dugu Silverspacekoen bigarren lana, 'Mirando al cielo' film luzean gazteek efektu berezietan parte hartu dutelarik. Guda Zibilaren garaian kokaturiko fikziozko dokumentala du ardatz filmak. Gernikako bonbardaketan bezala, Bartzelona ere airez eginiko erasoaldiaren biktima izan zen 1938. urteko martxoaren 16 eta 18 artean, non mila eta hirurehun lagun hil zituzten.

Jesus Garayk istorio hau ezagutu zuen Bartzelonan ari zela bizitzen eta zinemara eraman nahian 'Mirando al cielo' gauzatu zuen urte hasieran. "Garai hartako irudirik ia ez dago, ez behintzat ikus-entzunezkorik, eta horiek ikutu *errealista* batek sortzeko aritu ginen lanean Jesus Garayrekin". Katalunia eta Euskal Herriaren arteko koprodukzio honek ere baditu beste-lako kolaborazioak ere, hala nola, Fermin Muguruzak filmerako musika egin izana.



“Azkenengo sariak jasotzera ezin izan gara joan”, diote gasteiztarrek irribarra ahoan dutela. Eta ez da gutxiagorako ere, ez dago euren poztasuna kenduko dienik. Fruituak jasotzeko garaia etorri zaie Silverspaceko mutilei lau urteko lanaren buruan. Las Vegas eta Kaliforniara ezin izan dute bidaiatu, baina Florencian eta Amerikako Estatu Batuetan izan ziren euren lehen film laburrari eman zaizkion esker onak jasotzera. Goyara proposatuak izan direla ere ezin ahaztu!

Urte borobila izan da 2008a 3 dimentsiotan espezialduriko enpresa arabar aitzindari honentzat. Leonardo Da Vinci txiki baten abentura kontatzen duen film laburra ia mundu erdian izan da ikusgai, gasteiztarrak egiten ari direna ezagutzera eman duelarik. “Hasieran saiatzen ginen jaialdietara joaten baina dagoeneko ezin diogu martxari heldu, eta laburrak bakarrik bidaiatzen du. Bere bidea egin du. Izan ere, eta hasierako lan horri esker, zenbait topagunetan bestelako harremanak egin ditugu ekoizle, gidolari zein zuzendari desberdinekin. Eta orain proiektu horiei ekin behar diegu”, azaldu dute Rubenek eta Quiquek.



## Antonio Banderas eta familiari zuzendutako zinema

Proiektuz proiektu joan zaizkio Ruben eta Quique berri fresko-freskoak GEU aldizkariari kontatzen. "Orain koprodukzioan arituko gara batik bat. Gure egitasmo propioek itxaron beharko dute", dio Quiquek datozen bi urteetarako kronograma eta epeak erakusten dituen bitartean. Egun zenbait konturekin batera ari dira, denboran lehentasuna duten filmetan, alegia. Horietako bat, Galiziatik datorren 'El mago Dubidoso' izeneko film luzea da. Silverspacek filmak duen bi minutuko sarrera bi dimentsiotan egingo du. "Azarorako egon behar da *intro* hau egina. Eta denbora gutxi den arren lan handia eskatzen du, ez da errodaje batean bezala non aktoreak edo paisaiak grabatzen diren eta horrezkero *toma* hartuta duzun. Hemen minutu bakar bat egiteak sekulako esfortzua eskatzen du", adierazi dute.

Abendurako berriz, Silverspace 3 dimentsiotako enpresaren lana ere zinemetan izango da ikusgai, non eta 'El linçe perdido' izeneko filmean. "Antonio Banderasek duen produktorarako lan egingo dugu; kasu honetan zerbitzuen hornitzaile gisa -azaldu dute-. Raul Garcia eta Manuel Sicilia zuzendariak ezagutu genituen jaialdi batean, eta betiere 'Perpetuum Mobile' lanari esker, argiztapen eta renderraren ardurarako enkargatu ziguten lana".

'El mago Dubidoso' eta 'El linçe perdido' familia osorako filmak direla aitortzen dute gasteiztarrek. "3Dn egiten den gehiena publiko guztientzat egina dago, ikusleria familiarra deritzogun horrentzat. Azken finean ekoizleek ez dute arriskurik hartu nahi. Oso film gutxi ateratzen dira 3Dn. Ez dago lan guztia kolokan jarri eta zinemara joango diren zaleen kopurua mugatzeko aukerarik, genero desberdin batekin frogatu nahi izateagatik", azaldu dute. Horregatik, teknologia eta zinemaren munduan hastearekin batera Rubenek eta Quiquek lantzen diren generoen alde egin beharrean ikusi dute euren burua. "Orain arte fikzioa eta komedia egin dugu, bai gure egitasmo propioetan, bai kopro-



dukzioetan, eta baita zerbitzu hornitzaile lanetan ere; hala ere, etorkizun batean komedia erromantiko edota beldurrezko generoarekin aritu nahi genuke; buruan dugun zerbait da", aurreratu dute.

## Kuba, Argentina eta Hiroku heroia

Egitasmoen zerrendan aurrera eginez egun negoziaketetan aurreratuak dituzten beste bi nazioarteko egitasmori buruz aurrerapenik ematea edo ez galdetzen diote bere buruari. "Zer, askatuko al dugu mingaina?", diote pozik Silverspaceko mutilek bereganatutako ibilbide oparogatik. "Bai, hauxe ere kontatuko dizuegu!", erabaki dute. Batetik, Galileoren inguruko 3Dko film luzean aritzeko harremanetan ari dira Quique eta Ruben Argentinako produktora batekin; bestetik, Kubako Zine Institutu Nazionalarekin ere ari dira Silverspacekoak, zer eta film luze batean produkzio lanetan ibiltzeko. "Kuban 3Dn egingo

# Iturrieta



bertako sagardoa



hamarretakoak  
plater konbinatuak  
menu bereziak

ekainaren erdialdetik aurrera  
hasierako jabeekin berriro

# Sagardotegia



ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) Tl.: 945 445 385 - 685721593



zen lehendabiziko luzemetraia litzateke hau”, diote liluratuta. Bi hauek 2010erako prestatzen dihardu bikoteak.

Baina zalantzarik gabe, eta besteak beste, *soka ekarriko* duen koprodukzioa ‘Hiroku y los defensores de Gaia’ izeneko da. “Etorkizun hurbileko gazte ekologista talde batek multinazionalak arriskuan jartzen ari diren mundua salbatu nahi dute”, argudiatu du Quiquek. Fikzioa nagusi, film bakarra izan arren, jarraikortasuna izango duen egitasmoa ematen du Kanariar Irletatik etorri zaien proposamen honek. “Manolo Pixel da istorioaren gidoilaria. Gure lana film honetan, arlo ekonomikoan berarekin batera ekoizteaz gain, arlo artistikoan ere aritzea izango da. Pisua izan nahi baikeuen azken esparru honetan ere”, argitu dute. Kanariar Irlak ditu istorioak oinarri baina, hala ere, Rubenek dioen bezala, “etorki-

zunean errazago bidaiatu ahal izango da; hortaz, Amazoniako oihanera ere salto egingo dute gazte hauek. Arraza desberdinetako pertsonak biziko diren garaian kokatuko da filma; horietako batzuk neoguantxeak izango dira, etorkizuneko arraza eta indigenekin zerikusia duten bitarteko gizakiak, alegia”. Aizu, eta hauen guztien ageriko burua Hiroku dela esan beharrik ez, emakumezko heroia!

## Pompeia Valentia eta Mirando al cielo

Arabatik Kataluniara ere egin dute jauzi gasteiztarrek. Iruña-Veleia aztarnategiak zeresan ugari eman ditu azken urteotan. Ezin ahaztu Silverspace arabarrak diren heinean, beren ingurunean gertu dituzten aurkikuntzekin interesa izatea. Gauzak horrela, eta momentuz *stand byn* dagoen arren, proiektuari heldu diote gazteek Veleia Nova enpresarekin. ‘Pompeia Valentia’ izenez egun datarik ez duen proiektuak, Iruña-Veleia erromatar hirian girotutako fikziozko istorioa du abiapuntu. “Hasieran pentsatzen genuen baino lan gehiago du honek eta aurrerago lantzea pentsatu dugu, behar duen denboraz, izan ere”.

Azkar mugitzen da 3 dimentsioetako teknologia. Zeinek esango zien Ruben eta Quiqueri lau urteko buruan horrelako proposamen eta egitasmo goxoak izango zituztela esku artean. “Lasai hasi ginen ‘Perpetuum Mobile’ lanarekin, bi urte inguru eraman zigun hain iraupen gutxi duen laburra bukatzeak, baina benetan ondo egin nahi genuen”. Ezbairik gabe, Silverspaceri ondo egin dio motel eta tentuz jokatzek. “Jantzi nazazu lasai, presa dut-eta”, dio esamoldeak. Hirokurekin batera etorkizunean Quique eta Rubenen berri ere izango dugula garbi dago! ■



eguneko  
menua

**GORETTI**  
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (Korre), 14  
(San Migeleko pasabidea)  
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

**LA RIOJANA**  
on egin!!! jatetxea

bokatak,  
pintxoak, kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33  
tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa

**SEX** **PITILIN GORRI**

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ  
Tren geltokiaren ondoan  
Tel:945 15 42 60  
DONOSTIA OIARTZUN

**azkarprint**  
Imprenta / Inprimategia

Landazuri, 7 - 945 23 30 01  
GASTEIZ

♦ INPRIMATEGIA ♦

**DIBUtec**  
Papertegi teknikoa

Landazuri, 7 - 945 13 06 07

**Eraman**  
Argazki - Estudioa

Heraclio Fournier, 23  
(laborategia) 945 13 71 02

Askatasun kalea, 5  
945 26 19 91

*Bacalao Giraldo*

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN  
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25  
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36  
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza  
GASTEIZ

**El Clarete**  
jatetxea

unai eta patri fdr. de retana

zerkabarren kalea, 18  
gasteiz 945 263 874

**KIDG**  
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

## GASTEIZKO JAZZALDIA

Jazzaldiaren 32. edizioa gauzatuko da aurten uztailaren 13tik 19ra gure hirian. Beste askoren artean, esaterako, Chucho Valdes Quintet eta Bebo Valdes artista internazionalak ikusteko aukera izango dugu. Baina zer iritzi dute gasteiztarrek jaialdi honen inguruan?

**t./a.** josune garcia de bikuña

- 1.- Egon zara inoiz Gasteizko Jazzaldian?
- 2.- Gasteizerako onuragarria dela uste al duzu?
- 3.- Aurten joateko asmorik?



**Sandra Llamas, Gizarte-langilea**

- 1.- Ez.
- 2.- Bai, horrelako ekintzak beti daude ondo.
- 3.- Ez, kanpoan egongo naiz egun horietan.



**Sandra Basterra, Auxiliarra**

- 1.- Ez.
- 2.- Bai, oso ondo dago eta gainera beharrezkoa dela uste dut.
- 3.- Bai, sarrerak lortzen badituz behintzat joateko asmoa dut.



**Ibon Oribe, teknikaria**

- 1.- Bai, egonda nago.
- 2.- Oso onuragarria iruditzen zait.
- 3.- Ez, aurten printzipioz behintzat, ez naiz joango.

## idazleen zutabea

### GASTEIZEK BOTA EGITEN NAU

**t.** lourdes oñederra



Bizitzaren erdia (pasatxo honezker) daramat gasteiztar izan nahian. Batzuetan lortu dudala uste dut, batzuetan banaizela oraindik ere gasteiztar, lotzen nauela Gasteizek. Benetako hautua izan zen duela hogeita-piko urte egin nuena, izan ere nire beste hiritik honako distantziak ematen baitzidan aukera, hango hiritasunean jarraitzeko nire lankide gipuzkoar eta bizkaitar askok egiten zuten eta duten bezala. Beti maite izan ditut baina pluralak singularrak baino areago.


Hor agian nire hutsa? Bitasun horri eutsi nahi horretan? Esaten da, bi maitatuz gero, horietako bakoitzarenganako maitasuna ahultzen dela. Uste dut ez dela egia. Dena den, utz dezagun hori beste baterako.

Ez, ez naiz ni. Ez da nire pluralzaletasuna. Ez hori bakarrik behintzat.

Bada Gasteizen (agian hiri guztietan, baina niri hemen ari zait gertatzen) estetika zaharren desagertze erabateko hori, taberna eta saltoki eta plazen itxuraldatu behar konpultsibo hori... Hemen zahartasunak Erdi Arokoa ez bada (ofizialki hala katalogatua behar du), ez du balio: atzeratu eta pobretzat jotzen da. Edo, bestela, zahartasunak atzerritarra izan behar du, txantxetako bada ere, karton-piedrazko ostatu irlandarretan gurtzen den hori bezalako.

Bada Gasteizen egonezin zaratatsu hori... Ez dago leku isilik ni bezalako gizaki urbanoarentzat. Parkeetan ere oso eguraldi txarra egin behar du bakea izateko (eta orduan kontu ez ote dabilen tramankuilu dezibel-jaurtitzaila bat garbitzen, hostoak biltzen, edo...). Ostatu eta jatetxez zer esan! Karmele Jaiok ekainaren 16ko Diario de Noticias-en lerro dotore bezain zorrotzetan analizatzen du gure zarata behar hori. Ez dut parafasirik egingo. Hobe bere zutabera jotzea zuzenean.

Bitartean isiltasunaren, iraganaren arrastoen, euskarrien bila jarraituko dut. Gasteizen ere ■



Arraroa da margotu gabeko hormaren bat topatzea. Sormen uholde hau hiriarren ezaugarrietako bat da. Munduko graffitigile hobeenak Berlinera etortzen dira haien artea kaleetan erakustera. Etxe askotako atariak graffitiz josita daude. Aste batetik bestera, zeharo alda daiteke horma baten itxura. Argazki hauei begira, galdera bat bururatzen zaio oinezkoari: paretan horren aurretik igarotako pertsona bakoitzak bere sinadura utzi ote du bertan?

## BERLIN, ARTISTEN PARADISU



TESTUA ETA ARGAZKIAK: DAVID TIJERO.

**BERLIN, BI ALDIZ MUNDUKO HIRIBURU IZATEAREKIN AMETS EGIN ZUEN ZIUTATEA, IRAGAN MINGARRIA ATZEAN UTZI NAHIAN DABIL ASPALDI. HALA ERE, BERLINDARREK EZ DUTE ERABAT AHAZTU NAHI HIRIA BI ZATITAN BANATU ZUEN HARRESIAREN ZAURIA, AZKEN URTEOTAN ERREKLAMO TURISTIKOA BILAKATUA. XX. MENDEKO GERREN LABORRIAREN LEKUKO APARTA, ARTISTEN PARADISU BILAKATU DA AZKEN ALDIAN.**



Berlinen etxebizitzak oso handiak izaten dira, eta horietako asko hutsik daude. Europako Batasuneko hiriburuen artean, Berlinek ditu alokairu merkeenak. Honi esker, Europa osoko gazteak etortzen dira Alemaniako hiriburura. Gaur egun, 35 urte baino gutxiago ditu Berlingo biztanleen %70ak.

Postdamer Platz, Berlin berriaren irudi. Berlindaren hitzetan, arkitekto onenen lanik eskasena aurki ditzakegu han. Bertan Berlingo harresiaren zati batzuk topa ditzakezu; iragan hurbila ez dute ahaztu nahi berlindarrek. Eskuinean, Checkpoint Charlie: Gerra Hotzaren garaian, hiria eta mundua bi zatitan erdibanatzen zuen lekua. Gaur egun, turistentzako museo bihurtu dute.

# 10.000.000

lagun hilko ditu tabakoak munduan 2020. urtean, Munduko Osasun Erakundearen arabera; laster heriotza sortzaile nagusia izango da tabakoa, edozein gaixotasunaren aurretik. Dena den, zenbait adituren ustez, datu hori txikiegia da. Eta errua tabakoa hartzeko modu "alternatiboek" omen dute: antza, katxinban hartutako edo mastekatutako tabakoak izugarriko arrakasta lortu du azken urteotan hainbat herrialdetako gazteen artean.



# %40

hazi da Industria Iraultzatik atmosfera-ko CO2 kopurua, Hawaiiko Loa Mauna behatokiak neurtutakoaren arabera. Berotegi efektuaren gas sortzaileen artean nagusia da CO2, eta adituek diotenez, espero baino gehiago pilatzen ari da atmosferan. Lurra CO2 xurgatzeko ahalmena galtzen ari dela gaineratu dute, eta beraz, horrela jarraituz gero, are gehiago murriztu beharko direla gas igorpenak.

gaztezulo flash zure e-mailean doan jaso nahi duzu?



Hamabostean behin informazioa eskura

Bidali e-maila eta zure izen-abizenak [gaztezulo@gaztezulo.com](mailto:gaztezulo@gaztezulo.com) helbidera

15/1999 lege organikoen arabera, harpidedunak gaztezulo-ri emandako datuak Datuen Babeserako Agentzian inskribaturik dagoen fitxategi automatizatu batera igaroko dira, datuen kudeaketa hobea bermatzeko eta harpidedunak gaztezulo-ren jardura eta zerbitzu buruzko informazioa jaso dezan. Datu isgatzailak, ezinahi izango ditu sabilde, zuzenketa, ezertapen eta aurkaritza eskubidea, arauak ezartzen luenari jarraituz. Katalina Eteizegi 36, behea. 2009 Donostia helbidean, itota helbide elektronikoko honetan: [harpidetza@gaztezulo.com](mailto:harpidetza@gaztezulo.com)

## SAMIRA ZEROVALI RODRIGUEZ

Neska ireki eta alaia da Samira. Dantza egitea da bere zaletasunik handienetarikoa eta edozein momentu eta leku aprobeztatzen ditu musikaz gozatzeko. Gasteizen jaio bazen ere, bere sustraiak Marokon eta Extremaduran daude eta arabieraz ere komunikatzeko gai da.

t. josune garcia de bikuña a. edorta sanz

**Duzun biziorik handiena?** Hitz egitea, erretzea eta jatea, baita dantza egitea ere.

**Bertuterik?** Uste dut oso irekia naizela eta gustatzen zait jendeari gauzak erraztea.

**Akatsik?** Puntualitate eza eta gehiegi hitz egitea, batzuetan beldugarria naiz, kar-kar.

**Zerk ateratzen zaitu zure onetik?** Gezurrak eta itxurak egiten dituztenek beste-en aurrean, edo faltukerietan dabiltzanak.

**Egunkari bat?** Onartu behar dut El Correo bakarrik irakurtzen dudala Gasteizko gauzak ezagutzeko, eta besterik ez.

**Beldurrik?** Bakardadeari diot beldur eta maite dudan jendea hiltzeari. Nire heriotzak baino gehiago kezkatzen nau adibidez nire bikotekidearen heriotzak eta halako gauzek.

**Telebista saio bat?** Vaya Semanita, baina jadanik ez da horren barregarria. Oro har, barregarriak diren saioak, negar egiteko badaude nahiko arrazoi eta.

**Eguna ala gaua?** Eguerdia. Ez naiz oso goizale, baina bestalde gauetan berehala nekatzten naiz, beraz...

**Gasteizko gaua non?** Alde Zaharrea eta Judimendiko jaiak izugarri gustatzen zaizkit, nire ustez Gasteizko onenak.

**Kolore bat?** Urdina izan ezik ia-ia guztiak. Urdina gorroto dut mundu guztiaren kolore gustukoena izaten delako.

**Musika talde bat?** Orain oso Gatibu-zale naiz eta sarean argazkiak bilatzen nabil...

**Zer da Gasteizek duen onena?** Berdeguneak, lorategiak eta eratzun berdea gustuko ditut txakurarekin ibiltzeko.

**Txarrena?** Aitortu behar dut niri Gasteiz inoiz ez zaidala gehiegi gustatu, baina orain bikotekidea hemen daukat, etxea ere, eta gero eta gehiago gustatzen zait, halere ez dago giro handirik.

**Amets bat?** Dantzaria izatea eta eszenatoki batean egon. Ez dut benetan egin nahi baina ametsetan bagabiltza...



**GAUR EGUN, LANERAKO EUSKARAZKO TITULAZIOA BEHARREZKO DELA DIO ETA HORI IZAN ZEN HASIERA BATEKO ARRAZOI NAGUSIA EUSKARA IKASTEKO, BAINA ORAIN BESTEekin KOMUNIKATZEKO TRESNA ERE BADELA USTE DU.**

**Amesgaizto bat?** Bakarrik egotea edo lagun barik gelditzea.

**Edari bat?** Kafesnea.

**Janari bat?** Urdaiazpikoa gaztarekin.

**Iragana, eguna ala etorkizuna?** Etorkizuna. Beti nago pentsatzen biharko egunean zer egingo dudan eta hurrengo astean...


**HITZ EGITEA IZUGARRI GUSTATZEN ZAIOLARIK, MINTZALAGUNA PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DU URRITIK ETA ESFORTZU HANDIA EGITEN DU EGUNERO PRAKTIKAN JARTZEKO BERTAN ETA EUSKALTEGIAN IKASITAKOIA.**

**Oporrak non?** Oporrak edukitzearekin nahiko, kar-kar. Txakurra dugu eta horrek asko murrizten ditu gure aukerak, baina bestela ia-ia edozein lekutara joango nintzateke.

**Nora ez zinateke joango?** Tenerife edo horrelako leku turistikoetara.

**Zer eskatzen diozu bizitzari?** Lana aurkitzea, baina ez edonolako lana. Niretzat garrantzitsuena lanera gustura joatea da eta arduradun eta lankideekin harreman ona izatea da. Berdin zait garbiketa egiten egotea baina gustura, hori bai. Behin hori lortuta, seme-alabak edukitzea eta etxebizitza ordaintzea.


**Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?** Zaila da, batez ere maila ona ez dugunontzat, oraindik ikasten gaudenontzat, menperatu arte ez baikara ausartzen erabiltzeko urratsa ematera, kostatzen da; nire kasuan ez da lotsagatik, baina beste askoren kasuan bai ■



**‘LAS RUINAS DE  
LA CATEDRAL NUEVA’  
LIBURUA**

**JUAN IBARRONDO:  
“Euren herria utzi behar izan  
dutenak izan ditut gogoan”**

Gertakariak espazio eta denbora mugak gainditzen dituzte maiz. Atzera begira uler daitezke egungo liskarrak eta etorkizuna antzeman, batzuetan. Juan Ibarondok (1962, Gasteiz) iraganeko armairuetan miatu eta imajinazioari atek ireki dizkio hirugarren nobela honetan, ‘Las ruinas de la catedral nueva’. Bassarai editorialarekin kaleratuta liburuaren lehenengo edizioa amaitzear dago jada. Memoria historikoa berreskuratzearen garrantziaz jabetuta, langile askoren bizitzak islatu ditu Ibarondok hirugarren nobelan honetan.



## **t. naroa cuesta a. edorta sanz**

Kazetari lanetan ibili da luzaroan, irratian gehienbat, egun idazle sentitzen dela aitortu digu. Komunikazio arloan proiektu ugari bultzatzaile izan da, hala nola, Hala Bedi Irratia, Resiste aldizkaria edo Eutsi webgunea. Gidoilari lanetan aritzeko ikasketak burutu ditu azkenaldian. Proiektu berri batean murgilduta dabil orain. Lanbide eta Arte eskolako ikasleekin 'Trenecito' izeneko film labur batean ari da lanean, abenduan estreinatuko dute. Halaber, laugarren nobela du buruan dagoeneko.

### **Eraikin berriek aurriak ere badituzte?**

1930 hamarkadan gasteiztarrek egiten zuten broma bat zen hau. Izan ere, katedral berria 1908. urtean hasi zen eraikitzen, baina urte gutxiren buruan dirurik gabe geratu eta aurrietan egon zen hainbat urteetan. 1950 hamarkadako amaiera aldera amaitu zuten. Katedral berriko aurriak ikustera joaten zirela esaten zuten orduan ironiaz.

### **Zer dauka gehiago, historia edo istorioa?**

Nobela bat dela ezin dugu ahaztu. Baina Gasteizko pertsonaia erreala sartu nahi izan ditut. Mugimendu anarkistaren protagonista batzuk, hala nola, Alfredo Donnay edo Isaac Puente. Donnay abestiak idazteagatik ezagunagoa bada ere CNT-ko gidari garrantzitsua izan zen eta Isaac Puente, nire ustetan Gasteizko historiako pertsonaia garrantzitsuenetarikoa bat da, askotan ahaztua izan dena. Historia bainoago, istorioa dela esango nuke. Hala eta guztiz ere, dokumentazio lan handia egin dut kontatzen dudana gertara errealeraino oinarritzeko. Ostean, deformazio lana nire kontura etorri da.

### **1936 eta 1997 urteetan kokatzen duzun istorio hau hiru lekutan garatzen da: Gasteizen, Zamoran eta Mexikon. Zerk lotzen ditu garai eta leku horiek?**

Erabaki judizial baten ostean gertatzen da trama osoa. Erabaki hori 1939 urteko "Erantzukizun politikoaren legea" oinarritzen da.

Epai batek 50. hamarkada aldera erabaki bat hartzen du, guztiz "kafkiano" iruditu zitzaidan eta salatu beharrekoa. Era berean, oso gertakari literarioa da eta nobelaren hasierako puntua. Bestetik, nire ekarpen txikia egin nahi izan dut urte horietan gertatutakoa berreskuratze bidean, hau da, Gerra Zibilaren eta Franco jeneralaren estatu kolpearen ostean egindako errepresio bortitza, 1936. urte aldera, alegia. Orduan gertatutakoaren parte izaten jarraitzen du gaur egun bizi dugun egoerak, are gehiago Euskal Herrian. Ezin daiteke nobela historikoari buruz hitz egin, egun gertatzen ari baita oraindik. Hemen ondo ulertzen dugu hori, gatazka batean trabatuta bizi gara, gatazkararen erroak garai horretan bilatu beharko lirateke. Bestetik, 1997an momentu gogorak bizi izan zituen euskal gatazkak: Egin-en itxiera, Miguel Angel Blancoren hilketak, Herri Batasunako mahai nagusiaren atxilotzea, ETAren su-etena gertatzeke zegoen...

## **bat-batean**

- **Kazetari, idazle edo anarkista.** Hirurak. Ez dira zergatik kontrajarriak izan behar, ezta? Hala ere, orain ez naiz kazetari lanetan ari. Idazle sentitzen naiz eta libertarioa naizela esango nuke, pentsamendu horren oinarri dekoa.
- **Idazle bat, kazetari bat eta anarkista bat.** Garcia Marquez, John Reed eta Isaac Puente.
- **Iraultzarako aukerarik ba al dago gaur?** Ez dut uste soilik posible denik, beharrezkoa dela esango nuke. Iraultzarik ezean mundu hau hondamendira doa.
- **Zeinen eskutik hel liteke?** Iraultza herritik dator, edo ez da iraultza.
- **Zer eskaini dizu Gasteizek?** Nire familia, lagunak eta hamarkada ero bat: 80. hamarkada.
- **Gasteizko lekurik ederrena?** 80. hamarkadako Zapa kalea.

### **Zeinen istorioa kontatu nahi izan duzu?**

Nobela hau desplazatuei eginiko omenaldi moduko bat da. Euren herria utzi behar izan dutenak izan ditut gogoan. Liburu honetan hainbat desplazatu aurkituko ditugu. Alde batetik, Zamorako zelaietatik Gasteiza lanera etorri behar izan zuen jendea. Horietako batzuek, Katalunia eta Valentziatik zetozen harginekin harremana izan zuten. Orduan anarkismoaren gune garrantzitsua sortu zen hemen. Izan ere, 1936. urte aldera CNT Gasteizko sindikaturik indartsuena zen. Bestelako erbesteratuak ere aurki daitezke. Guda Zibilaren ostean Mexikora ihes egin behar izan zuten horiek, adibidez. Azkenik, 1960. hamarkadan Andaluzia, Gaztela eta Extremaduratik hona heldu ziren etorkinak aurkituko ditugu. Hauek beste errebolta garrantzitsu baten protagonistak izan ziren: 1976ko Martxoaren 3a. Nobelan agertzen ez badira ere, kontuan izan behar ditugu orain heltzen ari diren etorkinak.

### **Gasteizko Katedral Berriaren xurrutariak (gárgolak) ez dira batere ohikoak, ezta?**

Valentzia eta Kataluniako harginek egindako xurrutari horiek Katedral Berrian ikus daitezke, ostera ahantzi ditugula esango



juanibarrondo

da. Promozio bideoa egitea proposatu zidan Carolek. Sorpresa hartu nuen egindako laburmetrai ederra ikusi nuenean. Proiektu honek jarraikortasuna izatea espero dut. Dokumental bat egitea gustatuko litzaidake; gidoigile moduan arituko nintzen.

**Idatzitako aurreko bi liburuekin erkatuz, 'Vivos, muertos y viajeros' (2003) eta 'Retazos de la red' (2005), zer dauka berezi hirugarren honek?**

'Vivos muertos y viajeros' liburuarekin hasitako bidearen jarraipen modura uler daiteke. Hala ere, lehenengo nobela hori 80. hamarkadan zentratzen da. Baina, nolabait iraganeko istorioak biltzen dituzte biek. 'Retazos de la red' liburuarekin guztiz apurtzen du. Desberdinak izanda ere, badira nire burutik ihes egin ezin duten obsesio batzuk eta horiek hiruretan agertzen dira: gurutzatutako istorioak, espazio eta denbora mugak gainditzen dituzten lurpeko erresistentzia hariak...

**Zer-nolako kritikak jaso dituzu?**

Oso pozik nago. Edizioa ia amaitu egin da dagoeneko eta ez nuen horrelakorik espero. Gainera jendeari asko gustatu zaio eta askok esan didate hunkitu egin direla ■

nuke. Erljioarekin zerikusi gutxi dute eta oso literarioa iruditu zitzaidan. Harginek ez zituzten euren nagusien esanak betetzen, eta euren imajinaziotik sortutako gargolak egin zituzten.

**Gentzane Martin eta Carol Caiafasek**

**film labur bat egin dute, 'Gárgola Rojinegra', zure liburu hau aurkezte bidean?**

Kolonbiako dokumentalista gaztea da Carol, kasualitatez ezagutu nuen, eta Gentzane nire liburuen portadak egin dizkit, lagun ona



**MENDIAOPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
**MULTIOPTICAS**

Andre Maria Plaza  
Olagibel, 33  
Gasteiz

## ordutegia

>ekaina & uztaila: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara (ostiral arratsaldeetan itxita)

>abuztua & iraila: 10:00etatik 14:00etara (abuztuaren 11tik 22ra itxita)

>urtean zehar: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara (ostiral arratsaldeetan itxita)

non: gazteen argibideetarako udal bulegoan, plaza berriko etxabeetan

info+: [www.vitoriagasteiz.org/viajeteca](http://www.vitoriagasteiz.org/viajeteca)

## TXAPELA BURUAN ETA...

**t. ane pedruzo a. edorta sanz**

Bidaiateka Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoko zerbitzu iraunkorra da, zeinean munduko edozein tokitako informazio anitza aurki daitekeen. 2000. urtean ireki zituen bere atea oporraldian mugikortasuna bultzatzen duten baliabide eta jardueren berri eta aholkuak ere emateko xedearekin. Animatzen?

### Nora joan naiteke?

Plaza Berria 1, heldu gara Bidaiatekara. Atea zabaldu eta eskuinetara biratzean liburutegi batean sartu garelara ematen du. Dokumentazio anitza dago, baita esertzeko eta lasai-lasai irakurtzeko mahai batzuk ere, 25 bat laguntzako tokia gutxi gorabehera. Sergio Garcia Bidaiatekako lau langileetako bat da eta edozein zalantza izatekotan galdetzerik baino ez dagoela argitzen digu.

Gutzira, hirurehun eta laurogeita zazpi karpeta aurki daitezke. Karpetak tokien eta berariazko gaien arabera antolatutako daude. Sergiok zehazten digunez, herrialdeka antolatutako karpetak koloreen bidez bereizten dira; "Afrika horia, Europa gorria, Asia morea eta arrosa, Ozeania laranja eta Amerika berdea". Bertan munduko edozein herrialderi, eskualderi eta herriri buruzko informazioa dago bildua.

Honez gain, karpeta monografikoak ere badaude. Euren azalen artean, Done Jakue, Zilarraren eta Cid-en ibilbideen inguruko informazioa; baita kirol edo abentura ekintzena zein atzerriko hizkuntzen edota udako ikastaroena ere.

Bidaia liburuak, gidak eta National Geographic, Viajeros edo Euskal Herria aldizkariak ere Bidaiatekako elementuak dira.

### Badakit nora joan, eta orain?

Behin argi edukita nora joan nahi dugun, toki horren gaineko nahi beste xehetasun lor dezakegu. Liburuxkak, programazioak, turismo eta aisialdi eskaintza bereziak, garraibideen ordutegiak, nazioarteko aterpetxe-gidak..., zerrenda luzea da. Gainera, deskontuak ahalbidetzen dituzten karnetak (aterpetxe-kideen nazioarteko agiria eta ikasle, irakasle eta gazteen nazioarteko agiria) egiteko lekua ere bada Bidaiateka.

Hau guztia gutxi balitz, Sergiok azken ohartxo bat gaineratzen digu: "Nahi izatekotan, kontsultak egiteko bi ordenagailu daude eta bertan turismoarekin zerikusia duten web orrialdeez osatutako aurkibidea dugu".

Beharrezko informazioa bildu ostean bi aukera daude: etxera eraman edo fotokopiak atera. Etxera eramatekotan 48 orduko mailegua egiten dute Bidaiatekan eta fotokopiak nahiago badira hamar egin daitezke bertan doan.



Udaberriko eguraldi zoroaren ondorioz ez dirudien arren, udan murgildurik gaude dagoeneko. Normalean eguzki izpiak, itsasoa, mendia, beroa... eta batez ere oporrak dira urtaro honetako protagonistak, eta azken hauek oso bestelakoak izan daitezke antolatzen den bidaiaren arabera. Eskaintza zabala da eta erabakia zaila suerta daiteke. Horregatik, eta buruko minak arintzearen, Bidaiateka-ra hurbiltzea ez da batere ideia txarra.

## GASTEIZTARRAK MUNDUAN



imma ugarriza eta sergio garcia, bidaiatekako teknikariak

### Norentzat da bidaiateka?

Bidaiateka batik bat 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzako zerbitzua da; halere, aisialdia, oporrak eta bidaiak antolatu ohi dituzten herritar guztientzat ere eskaintza erakargarria da. Sergiok azaltzen digunez "motxileroak dira hemendik agertzen diren gehienak", abentura maite duten pertsonak.

Sergiok argibide gehiago eskaintzen dizkigun bitartean, hainbat gazte hurbildu dira Bidaiatekara. Letonia, Estonia, Lituania, Almeria, Korsika, Barbate eta Venezuela dute buruan gure ingurukoek, eta gehienek ezaguna zuten zerbitzu hau, beste behin egonda direlako edo eta lagun bategi gomendatu dielako. Sergiok bere aldetik Zaragozako Expora joateko gogoia daukala aitortzen digu eta bertan lan eginez erraztasunak ditu nonahi: "Lan emankorra da honakoa, informazioa kudeatzeaz gain, gu geu ere bezeroak baikara eta gure oporrak antolatzeko primeran datorkigu". Bera bai zorionekoa!

### Bidaiariekin elkarrekintza sustatuz

Dagoeneko bidaiak prest dugu, beraz, bidaiatzera! Eta bueltan Bidaiatekarekin jar gaitzake berriz ere harremanetan, baina ez informazioa eskuratzeko, baizik eta lehiaketa batean parte hartzeko. Izan ere, Interneten topatuko dugun bidaiariaren txokoaren bitartez beste bidaiari batzuei laguntza emateko aukera baitugu, leku interesgarriak gomendatuz, argazkiak erakutsiz... Gure esperientziak partekatzeagatik zozketa batean sartuko gara, non makina bat sari lor daitezkeen, besteak beste, liburuak, tren bidaiak edo argazki albumak.

Gainera, Sergiok gaineratu digunez, "zenbaitzuek oporretatik bueltan, bidaietan eskuratutako gidak eta gainerako informazioa ekartzen du zerbitzuaren berritze eta hobetze etengabea ahalbidetuz".

Zoriontasunaren formularik ez dago, baina bidaiatuz, gozatuz eta esperientziak partekatuz, zoriontsu izatea ez da zaila! ■



## SOFT TENISA, JAPONIATIK

Japoniarantz begiratu behar da soft tenisaren jatorria ezagutzeko. Historiak dioenez, japoniarrek 1870. urtean ezagutu zuten tenis jokoak europarren eskutik eta hamalau urteren buruan kirol berri bat asmatua zuten, soft tenisa.

t. ane pedruzo a. edorta sanz

Pixkanaka, diziplina hau mugak gairitu eta munduan zehar zabalduz joan da. Korea, Taiwan, Estatu Batuak, Filipinak, Zaire eta Dominikar Errepublikak izan ziren soft tenisaren lehen hartzaileak. Hain zuzen ere, azken herrialde honetan kokatu behar dugu gure protagonista, Hektor Ortiz, Dave lagunentzat.



### HEKTOR ORTIZ

## “Soft tenisa kirol internazionala eta multikulturala da eta jokalariorok etorkizunean sinesten dugu”

**Soft tenis ingelesetik hartutako termino bat da. Lehenengo hitzak (soft) kirol leun bati buruz ari garela ematen du aditzera, eta ez goaz bide okerretik honela pentsatuz, ezta?**

Oso ondo bideraturik zoazte horrelako hausnarketa batekin. Izan ere, nahiz eta tenisaren oso antzekoa izan, diziplina honetan erabiltzen diren lanabesak, funtsean erraketa eta pilota, ohi baino leunagoak dira. Erraketei dagokienez, estandarrek baino arinagoak dira eta gainera kordak ez daude hain tenkatuak. Honez gain, modalitate honetan, tenisean ez bezala, ile horirik gabeko gomazko pilota puzgarriak erabiltzen dira. Honek guztiak joko leun bat ahalbidetzen du, tenisa baino harmoniatsuagoa dena. Kirol “bereziki desberdina” da.

**Nolakoa izan zen zure lehen harremana soft tenisarekin?**

Duela hogeit hamar urte, japoniera ikasteari ekin nion eta horretan nengoela Sadao Hashimoto irakaslea ezagutu nuen Santo Domingon. Bera soft tenisean aritzen zen eta bere ondoan murgildu nintzen ni mundu leun honetan. Hein handi batean dominikarrok soft tenisaren ezagutza Sadaori zor diogula uste dut.

Orain niri dagokit berak nire herrialdean zabaldutako diziplina hau Euskal Herrian ere ezagutaraztea.

**Soft tenisaren errotze prozesuaren testuinguruan kokatu behar da Soft teniseko Euskal Elkarte. Noiz jaio zen eta zergatik?**

Kontu guztia 1993 urtean hasi zen, soft tenisean aritzen ginen zenbait lagunok zaletasunetik haratago zihoan proiektu bat aurrera eramatea erabaki genuenean. Kirolaren normaltzea zen gure erronka, eta

horretarako hainbat ekintza antolatzea erabaki genuen, klaseak, erakusketak, ikastarok, txapelketak...

**Zein da elkartearen gaur egungo egoera?**

Momentu honetan zuzendaritza batzordean zortzi kide gaude eta orotara 150 bazkide inguru gara. Dena den, nahiz eta bazkide ez izan, Euskal Herri mailan jarraitzaile anitz dauzkagu. Araban zehazki 300 pertsona baino gehiagok jokatzen du soft tenisean eta hogeit hamar herritan praktikatzen da, Biasterin, Gasteizen edo Añanako koadrilako zenbait udalerritan, esaterako.


Halere, lan handia dago egiteke diziplina hau euskal gizartearen finkatu dadin. Denborarekin hazi eta hobetuko dugulakoan gaude, baina horretarako kanpoko laguntza beharrezkoa dugu eta batez ere erakundearen konpromisoa.

# EUSKAL HERRIRA JAUZI BATEAN



## TREBAKUNTZA IKASTAROA

- > uztailaren 8tik 31ra bitartean, astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 20:00etara
- > non: judimendi gizarte etxean. dohain. 22 plaza
- > izena ematea: judimendin bertan kurtsoaren lehen egunean / edo telefonoz: 692 708741



## HEKTOR ORTIZ. Santo Domingo (Dominikar Errepublika). 49 urte

Hektor tenis jokalaria eta irakaslea izan da Santo Domingon. 1990 urtean Euskal Herrira iritsi zen eta geroztik Gasteizen bizi da. Hemen tenisaz gain, soft tenisa ere irakasten du eta Soft teniseko Euskal Elkartearen bultzatzaile eta kideetako bat da. Erakunde honen erronkarik handienetariko bat, Japonia sorburu duen kirol hau euskal gizartean errotzea eta normaltzea da eta, bide batez, Europa eta mundu mailan gauzatzen diren lehiaketetan parte hartzeko euskal talde ofizial bat lortzea. Xehetasun guztiak Hektorrek eskaintzen dizkigu ondorengo lerrootan.

### Zeintzuk dira elkarteak antolatzen dituen ekintzak?

Urtean zehar Gasteizko zenbait gizarte etxetan helduentzako ikastaroak eskaintzen ditugu. Honez gain, Hegoalde gizarte etxean umeei zuzenduriko eskolak ere ematen ditugu, non 6 eta 16 urte bitarteko 50 bat

ume eta gazte dauden gaur egun. Hauek Gasteiz junior taldea osatzen dute, eta Araba mailako hainbat txapelketatan hartzen dute parte.

### Ikastetxeetan ere hainbat proiektu gauzatzen dituzue, ez?

Bai, Koldo Mitxelena, Virgen Niña, Adurtza

Ikastola eta beste hainbat ikastetxetan erakusketak, hitzaldiak eta ekintza desberdinak garatzen ditugu. Horrelakoetan umeren batek interes berezia erakusten badu beraiekin jartzen gara harremanetan eta Gasteiz junior taldean sartzea proposatzen diegu.

### Helduen soft tenis euskal taldea ere badago eta hau sendotzeko asmoarekin uztailean hobetzeko ikastaro bat eskainiko duzue, zertan datza?

Uztaileko ikastaro honen helburu nagusia diziplinako tenislari onenak fitxatzea da. Soft tenis euskal taldea hobetzeko. Dagoeneko taldea osoturik dago, bai gizonetzkoena zein emakumetzkoena, baina jokalaririk trebeenak eskuratu nahi ditugu. Gure asmoa, uztailean Txekiar Errepublikan eta azaroan Polonian burutuko diren lehiaketetara joatea da eta horretarako ahalik eta talderik osasuntsuena osatzen saiatu behar dugu. Halere, emaitzarik onenak lortzeko, arestian esan bezala, instituzioen lankidetzara behar-beharrezkoa dugu, batez ere Soft teniseko euskal taldea mundu osoan aitor-tua izan dadin. Horretarako baina, etxetik bertatik hasi behar dugu. Etxea zimendueta-tik hasi behar da eraikitzen ■

## MAIDER BEDAXAGAR & AMAIA MUJIKA

# IPARRALDEKO IKASLEAK GASTEIZEN



Maider Bedaxagar Olorunekoa (Zuberoa) da. Amaia Mujika Uztaritzekoa (Lapurdi). 20 urte dituzte, eta iazko urrian Gasteiza etorri ziren Euskal Filologia lizentziaturaren azken ikasturtea egitera, beste hiru lagunekin batera. Erasmus programaren bitartez etorri ziren gurera, Euskal Herriko Iparraldetik Hegoalderako jauzia emanez, nahiz eta Erasmus sistemak zehazten duen “Frantzian” unibertsitate ikasketak egiten ari direnei “Espainiara” ikastera joateko aukera ematen zaiela. Ikasketak amaituta, euren herrietara bueltatu dira duela gutxi. Joan aurretik euren esperientzia GEUri kontatu diote.

**t. edurne begiristain**

**a. edorta sanz**

**Ikasturte oso bat eman duzue Gasteizen. Zer moduzko esperientzia izan da?**

**Amaia-** Oso polita izan da. Gainera, Erasmusen bidez mundo osoko gazteak ezagutu ditugu: Europakoak, Kanadakoak, Txinakoak... Polita izan da jendea ezagutztea.

**Maider-** Hori alde batetik, baina beste alde batetik esan behar da euskaldunak garela, nahiz eta Erasmusen bidez hona etorri. Esan behar da Gasteizen urtebetez ikasi duguna Iparraldean hamar urtetan ikasiko genukeen izan dela. Hasieran zaila egin zitzaigun, Euskal Filologia ikasketetan hemen dagoen maila Frantziakoarekin alderatuta askoz handiagoa delako. Beraz, lehen hilabeteetan asko kostatu zitzaigun hona egokitzea. Baina ez euskararengatik, mailarengatik baizik.

**Amaia-** Bai, baina normala da, Frantzian euskara ez baita ofiziala, eta horrek alde handiak sortzen dituelako. Frantzian ezin da halako mailarik lortu.

**Hizkuntza aldetik zer moduz moldatu zarete? Gaztelera erabili behar izan duzue?**

**Maider-** Gaztelera bagenekien, beraz, arras ongi moldatu gara. Hemen praktikatu behar izan dugu kaleko espainola, ogia erosteko eta horrelako kontuetarako gaztelera erabili behar izan dugulako.

**Gasteiz gustuko izan duzue? Zer gehien?**

**Amaia-** Hiria berez polita da. Alde Zaharra bereziki. Giroa ere asko gustatu zaigu, gau guztietan eta astelehen guztietan sekulako giroa egoten delako.

**Maider-** Alde Zaharra da bereziki gustatu zaidana, baita Unibertsitateko ingurua ere. Baina leku horietatik kanpo ez dut hainbeste maitatu Gasteiz. Hiria arrotzagoa sentitzen da.

**Amaia-** Hiri bat da, eta guretzat handia da... Baina, aldi berean, erraza da jende ezaguna kaletik gurutzatzea, hiria oinez egitea erraza da.

**Gasteizko txokorik maitagarriena?**

**Amaia-** Andra Mari Zuriko plaza asko maite dut.

**Maider-** Niri gustatzen zait Gaztetxearen ingurualdea, Matxete plaza eta inguruak.

**Alde handia dago Gasteiz eta zuen herrien artean?**

**Maider-** Bai, bai. Nire herrian 500 biztanle



maider bedaxagar eta amaia mujika gasteizko alde zaharreko faroloian

gara, eta niretzat Gasteiz hiri handi-handia da. Gainera, pisu batean bizitzea zaila egiten zait, etxe handi batean bizitzera ohituta nagoelako.

**Ikasleak izanda, Gasteizko ostegunak ezagutu dituzuela imajinatzen dut...**

**Maider-** Ostegunak zer ziren ezagutzen genuen, Baionan ere giroa egoten delako, baina oso desberdina da Gasteizko giroa. Hemengo ostegunetan ez dugu hutsik egin, oso gutxitan geratu gara etxean, kar, kar!

**Amaia-** Ostegunaz aparte, beti dago zer eginik Gasteizen; ez gara aspertu.

**Lagun asko egin dituzue? Jende berria ezagutu duzue?**

**Amaia-** Bai. Gainera, Erasmus Euskal Herrian bertan izanda, euskaldun asko ezagutu ditugu.

**Eta hemendik aurrera zer? Ikasten jarraitzeko asmorik?**

**Maider-** Bai. Udan lan egingo dut, dirua irabazteko. Eta gero beste bi urtez master-rra egingo dut Baionan. Maite dugu ikasle izatea! Kar, kar!

**Amaia-** Ikasten jarraituko dut nik ere. Urtebete emango dut Bordelen Antropologia ikasten, eta gero nahiko nuke Euskal Antropologia egin.

**AMAREN ALABA MUSIKA TALDEA**

**Maider, zu Amaren Alaba musika taldeko kantarietako bat zara. Duela 8 urte sortu zenuten taldea sei lagunek... Zer dela eta?**

Herri desberdinetako sei neska gara eta ikastolan ezagutu genuen elkar txikitan. 10 urte genituenean aitak (Jean Michel Bedaxagar) ikusgarri bat antolatu zuen Maulen, Ama izenekoa, eta azken kantuarantz galdegin zidan bospasei lagun biltzea eta orduan Mixel Etxekoparrek (lagun baten aitak) kantu bat idatzi zigun. Amaren alabak deitu gintuzten orduan, txikiak ginelako. Horrela hasi ginen. Kantu txapelketak etorri ziren ondoren, herriko festak Zuberoan, eta duela 5 urte ikuskitzun bat prestatu genuen Zuberoan emakumeen inguruan.

**Abesteko grina nondik etorri zaizue? Zuberoan denek abesten dugu, inkon-**

tzienteki ikasten dugu. Nik aita beti entzun dut kantutan. Baina ez da behar familian norbait kantari izatea abesten hasiteko. Asteburu guztietan kantatzen dugu dantzaldiak amaitu eta gero, Pastoraletan, Maskaradetan...

**Tradiziozko kantak abesten dituzue?**

Guk ez dugu konposatzen. Maite duguna da Zuberoako kantu zaharrak hartu, eta kantu horiek abestea. Melodiari baino gehiago, hitzei eman nahi diegu inportantzia. Kantu asko ironikoak dira, eta uste dut musika askotan kendu egin behar dela eta interes handiagoa jarri behar zaiola hitzari.

**Mikrofonorik gabe kantatzen duzue..., zer dela eta?**

Ez dakigu mikrofonoekin kantatzen. Mikrofonorik gabe lasaiago egoten gara. Baditugu ahots maila desberdinak, eta mikrofonoaren aurrean ez dakigu nola egin. Gehienetan plaza batean sartzen gara, karratu bat egiten dugu, eta 45 minutuko kantaldia eskaintzen dugu denen aurrean ■



★ IZARRA TABERNA - JATETXEA  
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

**ARANBIZKARRA**  
ZURE  
**AUTOESKOLA!**  
Valladolid kalea, 16  
Tfnoa. 945 28 28 39  
01002 GASTEIZ

**BARRA**  
TABERNA  
Equerditan, astelehenetik ostiralera  
**JANTOKI**  
**BEGETARIANO**  
SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4  
01001 - GASTEIZ  
TEL: 945 27 68 33

**ARTEPAN**  
aniztasuna, kalitatea eta zerbitzua  
norbanako eta enpresen eskura  
jesus guridi, 2 - tl. 945 27 88 88  
boulevard m.g. - tl. 945 06 88 88  
vitoria-gasteiz - www.artepan.com

**Udaberria**  
euskaltegia  
• Euskaltegi Homologatua  
• Helduentzat  
• Ume eta gaztetxoentzat  
• Musika eskola  
• Dantza  
Uruguai kalea, 9 - TI: 945 24 49 65  
Abendaño kalea 48 - TI: 945 22 34 33

# Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, behea • 945252631

aralar

## ZURE HARATEGIAK

**AIZPEOLEA**  
harategia  
arraindegia  
frutategia  
okindegia

**Jose Luis GARMENDIA**  
Harategia-urdaitegia  
Andaluzia kalea 13  
TI. 945 28 79 42  
GASTEIZ

Florida Azoka 2 eta 3 TI. 945 13 24 48

*gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak*

Obren egite  
eta zuzentzea

**ALTUNA** Estudioa  
"Azterlanak, Zurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"  
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa  
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ  
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

**UZTINTZA**  
KERAMIKA TAILERRA  
**KERAMIKA HERRIKOIA**  
**ETA BERRIA**  
HEDEGILE kalea (Korreria), 120  
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Euskadik  
behar zaitu

**EAJ**  
**PNV**

**ERROTA**  
HORTZ KLINIKA  
Julian de Apraiz kalea, 1 TI. 945 213 390 - Faxe: 945 213 390  
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net

bar • restaurante •  
**albéniz**  
Errege atea, 9 · GASTEIZ  
TI: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

MARRAZKIAK · KOADROAK  
MOLDURAK · LAMINAK  
**zurbeltz**  
Madalena kalea, 2 • TI: 945 13 27 20

Confecções  
**Pinedo**  
Jantziak  
San Antonio, 11 · TI. 945 23 39 90  
H. Fournier, 15 · TI. 945 15 53 39

**HEGOALDE**  
Euskaltegia  
Matrikula zaitetz !!  
Jose Lejarreta 9 behea  
Tfnoa 945 28 41 96  
01003 GASTEIZ

# proposamenak

## cd + liburua

### 'galdutako zubixak'

kemen lertxundi

gaztelupeko hotsak-08/ekaina [www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)



Galdutako zubixak

Kemen Lertxundi



ondarroako poeta eta musikari gazteak argitaratzen duen lehen lana da 'galdutako zubixak'. bi bideak elkar gurutzatu eta lotzen dira bertan. testuen koadernoan kantuek eta poemek egilearen biografia sentimental moduko bat osatzen dute, giza harreman orotan aurkitzen ditugun sentimenduez hornitua: beldurra, errua, damua, itxaropena, galera, bakardadea... poesia norbere burua ezagutzeko baliabidetzat hartzen du kemenek, eta asmo horretara iristeko erabiltzen du. kontzientzian jotako astinduak dira maiz bere poemak, iraganarekin zorrak kitatzeko eta zauriak sendatzeko modu bat, gabriel arestik idatzi zuen hura bere eginez ("poesia mailu bat da") eta esperientzia pertsonalaren eremura eramanez.

diskoan bi formatutan agertzen zaizkigu kantuak: batean, bakarka eta era akustikotan, gai da akorde gutxi batzuekin intentsitateaz betetzeko kantuak; bestean, ondarrorako garden rock progresiboko taldeko musikariaren babesaz, indar melodiko handiko eta moldaketa klasikoez jantzitako pop-rock eremura eta errepideko rock amerikarera jotzen dute kantuek.


kemen lertxundik solfeo eta klarinete ikasketak egin zituen eta egun musika irakaslea da

## liburua

### 'oinarrizko gramatika'

andres alberdi gorostiola

elkar-08/ekaina [www.elkarlanean.com](http://www.elkarlanean.com)



gramatika kontsulta-liburu erabilgarria. molde eta izate ezberdineko gramatika asko ezagutzen da han-hemen. esku artean duzun honek ez du molde jakin batera jokatu nahi izan. terminologia, metodo eta analisi jakin eta espezifikoetatik ihesi, oinarrizko gramatika koherente eta erabilgarri bat osatzera jo nahi izan du.

ez da, bestalde, hutsetik sortu den gramatika, iturburu jakina du: eskola gramatika (1996). haren uberan moldatua eta taxutua dator. lau berrikuntza seinalagarri dituela esan behar da, ordea:

- euskaltzaindiak gaur arte emaniko arau eta gomendio guztiak osorik eta orpo orpo jasotzen ditu, eta horrek testu guztiak goitik behera orraztu beharra ekarri du.
- gaur eguneko prosa didaktikoan nagusituz joan diren moldeak eta ohitura berriak ere jasotzen dira.
- idaz-estilorako gomendio praktikoa batzuk ere gehitu zaizkio.
- maina bereziz eta tentuz eginiko gaikako aurkibide zehatz eta oso bat paratu zaio atzeko partean, bilaketak eroso eta erraz egiteko.

euskara ikasten edota euskara lantzen eta sakontzen ari den edonorentzat, gramatika kontu eta arazoei irtenbidea arin eta erraz aurkitzeko moduko kontsulta-liburu bat izan nahi du.

salneurria: 23,80 euro orrialde kopurua: 328



## literatura dosi txikitan

### EKAIN BELTZA

#### t. mikel ayerbe



Ez dakit nork kendu zizkion egunak ekainari, baina hasi eta buka, dena bat. Eta ez dakit hori seinale ona den: minutuak, orduak, egunak eta hilabeteak oharkabean pasatzeak baduelako zahartzearekin zerikusirik. Baina jadanik oporretan zaudetenontzat urruti gelditu da ekaina, eta oporretan zahartzaroari ere garrantzia kentzen zaio. Oporretan dena baita eramangarriagoa. Baita irakurtzea ere...

Oporretan gehiago irakurtzen da. Urtean zehar egiten ez dituzten gauzak egiten dituztelako batzuek oporretan, eta kasu batzuetan, liburu bat irakurtzea izan daiteke. Inbidia apur bat ematen didate urtean behin hondartzan liburu bat irakurri (best-seller edo auto-laguntza liburuak izan, berdin dio) eta horrekin bakarrik nahikoa dutenek. Baina uste dut gezurretan ari naizela, futbola gustatzea nahiko nukeela esaten dudanean bezala. Beste zenbait irakurlek urtean zehar ezin irakurri izan dituzten baztertutako liburuak berreskuratu eta oporretan hauek irakurtzeari ekiten diotelako.

Eta nik behintzat, hori bera egiteko asmoa dut ekaineko larunbatetan Berria egunkariaren bitartez eskuratu zitezkeen liburuekin. Izan ere, Ekain Beltza leloaren azpian, oso goraiatuak izan diren lau nobela beltz banatu zituen Berriak, bakoitza 2'9 euroren truke: B. S. Ballingerren 'Kez egindako erretratu'; R. Chandlerren 'Ez adiorik'; R. Macdonalden 'Hil-aurreko begirada' eta J. Thompsonen 'I280 arima'. Punta-puntako lau nobela beltz, X. Olarra, J. Cillero eta J. Iturraldearen punta-puntako euskal itzulpenekin. Egia esan, irakurle izan edo ez, guztiz eskertzekoa Berria egunkariak eginiko eskaintza.

Oporretan irakur dezala bakoitzak nahi duena, asko edo gutxi, edo ezer ere ez. Baina urtean liburu bakar bat irakurtzen duenari liburu hori ongi aukeratzeko eskatuko nioke. Eta horrekin uler dezala bakoitzak nahi duena ■



## ZUIAko KOADRILA, ZUGANDIK GERTU



### t. zuiako koadrila

Badira sei urte zonalde honetan bisitaldi gidatuekin hasi ginela. 2002 urteko maiatzean, proiektu ilusionagarri eta eder batekin aurrera jo genuen: Zuiako koadrilaren kultura, artea eta historia jendearen eskura jartzea. Hemendik abiatuta urtero-urtero lan honekin jarraitzea izan da gure helburua.

Urtegiak, mendi zoragarriak, kondaira liluragarriak eta arte goxoa, Zuiak ezezaguna zen jende askorentzat bidean hasi ziren agertzen.

Hasiera batean autobusa hartuta jende ugari hurbiltzen zen gure udalerrira desberdinetara. Gida batekin edo birekin askotan, Zuiako koadrilako ondasuna zen gure xedea. Geroago, iaz hain zuzen ere, eta kanpoko jendeak ere parte har zezan, proiektuari buelta bat eman nahi izan genion eta turistikoa goa bihurtu. Autobusak alde batera utzi eta gure eliza, baserri, baseliza, museo eta gune historiko interesgarrienak ireki eta ezagutarazi nahi izan genituen. Horrela, astebururo jendea beraien kotxeetan nahi zuten hurbiltzen zen eta gu hantxe ginen daki-gun guztia harenganatzeko prest.

Gaur egun zenbait leku aldatu ditugu. Udalerrira guztiek gure bisitaldian egon behar dutenez ekainetik aurrera berriro lan honi ekingo diogu.

### **I. IBILBIDEA: ERROMANIKOAREN BIDEA**

#### **OROKO AMA BIRJINAREN SANTUTEGIA**

Zuiako harkaitz ospetsuetan kokaturik, zer edo zer magikoa izan behar du gizon-emakumeak jada Burdin aroan leku honetan bizitzen hasteko.

Bisitariak magia kokapenean antzemango du berehala, horko bistak paregabeak baitira. Baselizaren barnean, Ama Birjinaren irudia, XIII. mendeko bitxia, bere erretaula barrokoan agertuko zaigu.

#### **OLANO**

Zigoitia udalerraren barnean kokaturik, berrizaturik eta lanean diharduen errota ezagutzeko aukera luzatzen digu, urteen joan-etorriak ikusi dituen erromaniko estiloko elizaren ondoan, zeinak garai horretako hondakinak kontserbatu dituen baina bereziki aipagarriak dira bertako erretaula nagusia, XVI. mendekoa (gotikoa), balio handiko taula margotua, erliebe eta tailaz hornitua.



**BISITA EUSKARAZ EGITEKO AUKERA DAGO, TALDEAK HALA ESKATUZ GERO**

## II. IBILBIDEA

### IZARRA-IRUBIDAU MUSEO ETNOGRAFIKOA

Gure arbasoen bizimoduak ezagutzeko aukera emango diguten altxorren artean ibiliko gara, nekazaritza, abeltzaintza, artisautza eta zonaldeko ohiturekin erlazionaturiko elementuen artean, baserri ezberdin eta ederren artean.

#### GOIURI (Eliza, Errota eta Ur-jauzia):

Ingurunean zabaltzen diren eliza erromaniko anitzen artean, Gorbeaiako haizeak eramaten duen 100 metroko altuerako jauzia agertzen zaigu. Gainera, eraberriturik eta funtzionamenduan dagoen errota ezagutzeko aukera izango dugu.

#### BISITA ANTZEZTUA (UZTAILAREN 12AN)

Lurralde zoragarri honetan bizi izan diren gizon eta emakumeen bizitza nolakoa izan den antzemateko, "denboraldiaren gauean" galtzea eta irudimenari jarraitzea dugu beharrezkoa.

Baserría, lurra lantzea, fruitu goxoak ateratzea eta ganbarara, ukuilura edo sutondora eramatea, bakarrik herriko jauntxoak horrela utziz gero posiblea zen.

Garia, artoa, garagarra,... elurra, euria edo ihintzak hartutako barazkiak, urrutiko haran honetan bizitzak aurrera jarrai dezan beharrezkoak dira.

Ezagutu nahi al duzu nola bizi ziren duela zenbait mende lur honetako gizon eta emakumeak? Beste modu batera kontatuko dizugu.

## III. IBILBIDEA: ARAMAIO

### IBARRA (Gune Historikoa)

Arabako Suitza ederra eta miretsia, Alfontso XIII.-ak bere bidai abatean adierazi zuen bezala, mendeen artean eraikitako baserriak, mendiak eta baselizak ditu inguruan. Bertan ere, Mari Anbotoko Dama edo Barajuengo Jauntxoaren kondaira eta pertsonaiak agertuko zaizkigu.

### BARAJUEN - OLATEZAR GAZTANDEGIA

Haraneko herririk zaharrena bisitatuko dugu. Bertan, Aramaioko jauntxoak biltzen ziren, eta kondairak dioenez, Anbototik Gorbeaira zihoazen sorginak hemendik hegaka igarotzen omen ziren. Bukatzeko, Olatezar gaztandegiari bisita egingo diogu. Hemen, artzantzaren ohitura zaharrak, baita Idiazabal jatorrizko deitura duen gazta moder-nizatzekeo burutu diren prozesuak ere ezagutzeko parada izango dugu. Gazta ekoizteko modua ikusiko dugu, ardiei ilea mozteko era, zonaldeko ardi mota desberdinak eta abar. Bisita hau amaitzeko Aramaioko sagardoarekin batera gaztandegiko gazta goxoa dastatuko dugu.



## BESTE AUKERAK

#### • Euskal Buztingintza Museoa (Ollerieta)

Orduetegiak: Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 19:00etara.

Larunbatetan 10:00etatik 14:00etara. Igande eta jaiegunetan itxita.

Tfnoa: 945 455 145

#### • 'Irubidaur' Museo Etnografikoa

Tfnoa: 609 494 301

#### • Ezti Museoa (Murgia)

Orduetegia: Martxotik urrira, asteburuetan irekita.

Tfnoa: 945 430 440 / 945 430 167

#### • Olatezar Gaztandegia (Barajuen-Aramaio)

Tfnoa: 690 876 278

Aukerak: gaztandegira bisitaldia, ardien ile kenketa, artzain txakurraren heziketa. Ordubeteko bisitaldi etnografikoa. Bisita egin ahal izateko alde zurretik deitu behar da (gehienez 10-15 pertsona eta gutxienez 4 pertsona). Prezioak honakoak dira:

- Taldeak (8 pertsona gehienez):

5na euro

- Taldeak >8 pertsona: 4na euro

# arababixotzian



m. iñigo sarasola



## zutabea

t. erlantz urtasun antzano.  
historialaria



### Agurain-Salvatierra

Uztailean sanferminak dira, hots, euskal hiriburuko jai nagusiak. Egun eta hemen, haatik, dexente aldatu dira.

Horrela, batzuek diote ez direla euskal hiriburuko jai nagusiak, euskal hiriburuan eta interes ekonomiko zehatz batzuei loturik ospatzen ohi direnak baizik, jai herrikoiekin edota bertoko jende xumearekin harreman handirik ez ei dutenak, alegia.

Bada, eta Iruñeko adinekoei behin baino gehiagotan entzuna, lehenagoko sanferminak jaiak ziren, bai, baina lan handiko egunak ere bai. Egitarau zaharrak irakurri, bertzerik ez dago: "Ferias y fiestas". Hau da, uzta jaso eta trukerako beta.

Duela mende erdia arte edo, eta ez gaztettoak gaupasaz, bertze euskal herrialdeetako jendea Iruñerat hurbiltzea usadioa zen. Errate baterakotz, kostaldekoak arrantzalez jantzirik agertzen omen ziren, taldeka, eta zeredozer aditu dut Aguraingo jendeari buruz ere bai. Antza, ezkertiar koadrilaren bat inguratzen baitzen errepublikar urteetan, 1936an ea erabat fusilatu zuten "peña" bateko partaideekin lagunarteko harreman estua zutelakotz.

Urte beretsuetan, halaber, bertze iruinsHEME bat ospetsua zen, Iruñeko PSOEko militante ezaguna, euskaltzale amorratua eta Estatuto Vasco zelakoaren defendatzaile sutua. Iruñeko amatxi batek aspaldi aitortu zidanez, "era el hombre más guapo de Pamplona". Ez ditut bere datu guziak emanen, baina jakin ezazu, irakurle maitea, Salvatierra zela haren abizena eta, aztertu dudanaren arabera, bere sendiak jatorri arabar hura zuela.

Argentinan hil zen, frankismo betean, "guda zibila" izeneko galdu eta gero. Bere "euskaltzale eta abertzale joera" medio edo, gerra ondoren PSOEtik kanporatu zutela idatzi da.

Jai eta aisialdirakotz tenorea baitugu uda, noski, baina baita oroitzekotz tartea ere. ■

**geusex@emaize.com**


Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakin-minik al duzu?

Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.

**Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak:**

**geusex@emaize.com.**

**Emaize Sexologia Zentroko profesionalak erantzungo dizute.**



emaize sexologia zentroa  
gizon eta emakumeentzako arreta

bueno monreal I-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com

**Aupa, neska-lagunarekin nagoenean nahiz eta denbora luze eman zakila sartzan, berak ez du amaitzen. Bajina zein alua gorrituta eta minduta bukatzen du eta haserretu egiten da. Zer gertatzen zaio?**

Ez duela amaitzen esatean, orgasmoa sentitzeaz ari zara? Hori da aldatu beharreko lehen ideia: joku erotikoen helburua ez da orgasmoa, elkarrekin gozatzea baizik, beraz, **orgasmoa ez da hasiera, ezta bukaera ere.** Orgasmoak, segundu batzuk irauten ditu beti; gozamenari aitzitik, nahi diogun iraupena emango diogu.



Arrunta da neskek sartzaren bidez orgasmorik ez sentitzea, **bajinak sentikortasun gutxi** duelako. Hau ez da inolako arazoa, gorputz atal guztiek ez dute sentiberatasun maila bera, besterik ez.

**Alua, ordea, oso sentikorra da** eta beste joku askorekin (masturbazioa, miazkatuz...) goza dezakezue. Nesken bajina eta alua busti egiten dira eszitatzerakoan, baina hezetasun honek gorabeherak ditu eta sartzek denbora luze irauten badu lehortu egiten da, mina sentitzea arrunta delarik. Orgasmoak sentitzea ez da denbora kontua. **Gozatzeko, sentsazioetan murgiltzea beharrezkoa da, orgasmoaren** helburua ahaztuz, honen **bila ibiltzea ez sentitzeko modu ziurrena** baita.

Zure bikotearen haserrea orgasmorik ez duelako sentitzen edota mina egiten diolako izan daiteke. **Egoera aldatzea beharrezkoa da biok gozatu ahal izateko eta frustraziorik ez sortzeko.** Sartzek joku erotiko bat da (ez hobea, ez atseginena), beraz gauza desberdin asko eginez goza dezakezuela sinestea garrantzitsua da ■

## errezeta

### GAZTA TARTA

(8 anoa)

diocesanasmendizorrotxa  
ostalaritza eskola



#### Osagaiak:

· Gazta biguna (San Millan gisakoa)	300 g
· Esnegaina	200 g
· Esne-hautsa	70 g
· Azukrea	120 g
· Irina	30 g
· Arrautzak	200 g
· Gurina	60 g

#### Elaborazio prozesua:

Lapiko batean azukrea, irina eta esne-hautsa ongi nahastu, hagaxka batekin ongi eraginez.

Esnegaina, gazta biguna, arrautzak eta urtutako gurina nahastu eta berotzen ipini, hagaxka batekin eraginez. Irakiten hasi baino lehenago epeltzen utzi (60°). Hasieran aipatu diren hautsezko osagaiekin nahastu eta moldea betetzen hasi. Moldea aluminio-paperekin estali behar da eta hondoan txikitutako gailetekin egindako oinarri mehe bat ipini ohi da. Ertz mehe bat bete gabe uzten da.

40 minutuz labean berotu 160°C-tan. Hozten utzi, desmoldatzea hurrengo egunean egin ■





**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**

HUMANITATE ETA  
HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA

FACULTAD DE  
HUMANIDADES Y  
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

## 2008-2009 ikasturterako eskaintza

**INSKRIPZIO EPEA ZABALIK**

### FORMAZIO ARAUTUA

**IRAKASLE IKASKETAK:** *(lana utzi gabe 2. diplomatura egiteko aukera)*

- > Haur Hezkuntza espezialitatea
- > Hezkuntza Berezia espezialitatea
- > Atzerriko Hizkuntza espezialitatea
- > Heziketa Fisikoa espezialitatea
- > Entzumena eta Mintzaira espezialitatea
- > Lehen Hezkuntza espezialitatea

**PSIKOPEDAGOGIA LIZENTZIA:** *(bigarren zikloko lizentzia)*

On-line eta erdi presentziala, Bilbon nahiz Eskoriatzan

- > Hizkuntzen Psikopedagogia
- > Esku-hartze Psikopedagogikoa

**IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA LIZENTZIA**

### GRADUONDOAK

- > Hizkuntzen Kudeaketa *(Aditu titulua )*
- > Prestakuntza Pedagogikoa *(Aditu titulua )*
- > Euskal Kulturgintzaren Transmisioa *(Aditu titulua, 2009ko urtarrilean hasiko da)*

### DOKTOREGO PROGRAMA

- > Humanitateak eta Hezkuntza etrokizuneko erakundeetan

**INFORMAZIO GEHIAGORAKO:**

**HUHEZI** (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea)

Dorleta auzoa z/g, 20540 Eskoriatza - GIPUZKOA

Telefonoa: 943 714157 - Faxa: 943 714032

e-maila: [sarrera@huhezi.edu](mailto:sarrera@huhezi.edu)

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



**01** **ASTEARTEA**  
20.00 PARRAL  
**HOT WOK**  
21.30 GORA  
**MAMBA BEAT**

**02** **ASTEAZKENA**  
20.00 GORA  
**GROOVIE DOOBIE**  
**GROOVE**  
21.30 KITSCH  
**BAD +**

**03** **OSTEGUNA**  
20.00 KITSCH  
**MIGUEL FDZ.**  
**QUARTET**  
21.30 PARRAL  
**ACIDO C**

**08** **ASTEARTEA**  
20.00 PARRAL  
**THE BILLIE**  
**JEANS**  
21.30 KITSCH  
**LONGBOARDS**

**09** **ASTEAZKENA**  
20.00 KITSCH  
**DAVID SOLER**  
**TRIO**  
21.30 GORA  
**CHERRY BOPPERS**

**10** **OSTEGUNA**  
20.00 GORA  
**MAMASSITA PRO**  
21.30 PARRAL  
**BRABENDERS**

**11** **OSTIRALA**  
21.30 ARTIUM (ART+SOUND-ek ANTOLATUTA)  
**MAMA BOOGIE**

**13** **IGANDEA**  
20.00 LA RIOJANA  
**DA SOUL JET**

[www.jazzaharrean.com](http://www.jazzaharrean.com)  
**jazzaharrean**  
 ALDE ZAHARREKO JAZZ JAIALDIA **2008**  
 VITORIA-GASTEIZ


BABESLEA



HEDABIDE OFIZIALA



KOLABORATZAILEAK



Fundación Sencho el Sabio Fundazioa